



EAEko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana

Bikaintasunerantz ekitatean oinarrituta

2016ko martxoa

Heziberri 2020

AURKIBIDEA

Aurkezpena

1. Sarrera

- 1.1. Hobetzeko Planaren justifikazioa
- 1.2. EAEko hezkuntza-sistemaren diagnostikoa
- 1.3. Hobetzeko Planaren printzipio antolatzaileak

2. Ildo estrategikoak

- 2.1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
- 2.2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna
- 2.3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan
- 2.4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
- 2.5. Ebaluazioa eta ikerketa
- 2.6. Ikastetxe publikoen autonomian sakontzea

3. Laguntza-tresnak

- 3.1. Dekretuak garatzeko araudia
- 3.2. Ikastetxeetako proiektu instituzionalak egiteko edo egokitze gidak
- 3.3. Ikasgelan aplikatzekoak diren gidak eta tresnak

4.- Hobetzeko planaren helburuen betetze-maila egiaztatzea

Eranskina: Ildo estrategikoen eta haien helburuen laburpen-koadroa

Ildo estrategikoen garapenari lotutako araudia, planak, programak eta deialdiak.
(Web orrian argitaratuta, [Heziberri 2020 Planaren atalean](#))

AURKEZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza-sistema hobetzeko plan hau Heziberri 2020 planaren barnean dago, eta haren iraupena, Heziberri 2020 Planaren eta Europako Batzordearen “Hezkuntza eta Prestakuntza 2020” izeneko esparru estrategikoaren multzoarena bezala, 2020. urtera arte luzatzen da.

EAEko hezkuntza-sistemak eta beste hezkuntza-sistema batzuetan kontrastatutako esperientziak aukera ematen digute hezkuntza-bikaintasunerantz ekitatea galdu gabe igarotzeko eraginkorrenak diren hobekuntza-ildoei buruzko datuak edukitzeko eta ondorioak ateratzeko.

Plan honen barnean hartzen diren hobekuntza-proposamenak hezkuntzarako oinarritzkoa den aldira daude bideratuta lehentasunez. Haur Hezkuntzatik Batxilergoa edo Lanbide Heziketa bukatu arte belaunaldi berriak helduarorako prestatzeko baliatu behar den hezkuntza-aldia horixe dela uste baita.

Gaur egun indarrean dauden proiektuak hobetzeko planean hausturarik gabe sartzen dira, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren ardatzaren gainean modu koherente eta osagarrian zentratuz, eta era horretan ikasleen irteera-profilean definitutako oinarritzko konpetentzia guztiak lortzen lagunduz. Hobetzeko plan osoaren izendatzaile komuna hezkuntza-sistemak ekitatearen eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz aurrera egin dezan laguntzea da.

Hobetzeko planak bere sarreran, justifikazioarekin batera, hezkuntza-sistemaren bilakaeraren diagnostiko labur bat egiten du, eta 2020. urterako hainbat jomuga planteatzen dira, hezkuntza-sistema bikain baterantz aurrera egiteko erronka gisa baliagarriak izango direnak. Gainera Plan hau antolatzen duten printzipioak hartzen dira barnean:

- ✓ Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-esparru pedagogikoarekiko koherentzia
- ✓ Inklusioa, ekitatea eta bikaintasuna
- ✓ Sozietatea eta kultura, parte-hartzea eta gardentasuna
- ✓ Ebaluazioa eta kontuak ematea
- ✓ Hobetzeko planaren bideragarritasuna, progresibitatea eta jarraipena

Prestakuntza-plana bi bloketan dago egituratuta: lehen blokean, hezkuntza-sistemak ekitatearen eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz aurrera egin dezan funtsezkoztzat jotzen diren alderdien plangintzari lotuta dauden ildo estrategikoak daude bilduta. Ildo estrategikoak honako hauek dira:

- ✓ Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
- ✓ Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna
- ✓ Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan
- ✓ Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
- ✓ Ebaluazioa eta ikerketa
- ✓ Ikastetxe publikoen autonomian sakontzea

Bigarren blokeak Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredua garatzeko eta praktikan jartzeko beharrezko laguntza-tresnak hartzen ditu barnean.

Hobetzeko planak, amaitzeko, betetze-mailaren adierazleak formulatzen ditu eta ildo estrategikoen helburuak biltzen dituen eranskin bat gaineratzen du.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak landu du plan hau, eta EAEko hezkuntza-sistema osatzen duten agente guztiei dago bideratuta, hala titulartasun publikoko ikastetxeetan nola titulartasun pribatuko ikastetxe itunduetan daudenei. Guztion lankidetzarekin bakarrik izango da posible hobetzeko plan honek arrakasta izatea.

Cristina URIARTE TOLEDO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua

Vitoria-Gasteiz, 2016.ko martxoaren 8an

1.- SARRERA

1. 1. HOBETZEKO PLANAREN JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko plana aurkeztea aurreikusten da:

“Hezkuntza-eskumenak dituen sailak, kontuan hartuz dekretu honetako hezkuntza-eredu pedagogikoa eta barruko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak, hezkuntza-sistema hobetzeko beste plan bat aurkeztuko du, eta bertan jasoko ditu euskal hezkuntza-sistema osoa zuzentasunaren eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz joateko neurri guztiak.

Plan horretan sartuko dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak dekretu honetan hartutako konpromisoak. Konpetentzien araberako eredu aplikatuz Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak lortzeko estrategiek garrantzi berezia izango dute Plan horretan. Batik bat, neurri hauek nabarmenduko dira: irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzarekin lotutakoak; elebitasuna hezkuntza eleaniztun baten barruan sendotzeko neurriak, ikastetxe guztietan atzerriko lehen hizkuntza komunikazio-hizkuntza gisa eskaintzea orokortu arte; hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari eman beharreko arreta bultzatzeko neurriak; ikastetxeen autonomia sustatzeko neurriak eta ikastetxeak euren kontuak aurkeztera akuilatzekeo neurriak; material didaktikoak egin eta erabiltzeko neurriak eta ikasleak eta hezkuntza-sistema ikertzeko eta ebaluatzekeo neurriak. Irakasleei, ikastetxeei eta familiei beren erantzukizunak betetzen laguntzeko neurriak ere hartuko dira”.

Bai Heziberri 2020 planaren hezkuntza-eredu pedagogikoa, bai Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak ezartzen dituzten dekretuetan ezarritako araudia, eta etorkizuneko Batxilergoko dekretuan ezarritakoa ere, bideragarriak izango dira, baldin eta praktikan jartzeko bitarteko eta baliabideen plangintza eta egokitzapena egiten bada. Berezi garrantzitsutzat jotzen dira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak dekretuetan bere gain hartutako konpromisoak, hobetzeko plan honen aurkezpena justifikatzen baitute, hezkuntza-sistema osoa ekitatearen eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz bideratzeko beharrezko neurriak planteatzea eta operatibo bihurtzea baita planaren xedea.

Hobetzeko plana modu osagarrian hainbat erreferentetan oinarritzen da:

- ✓ Batetik, hezkuntzak EAEn egin duen bidea kontuan hartzen da eta sistemaren alde indartsuei eta hobekuntza-arloei buruzko informazioa eskaintzen duten barne- eta kanpo-ebaluazioetan oinarritzen da. Ildo horretan, Hobetzeko Planerako erreferenteetako bat ISEI-IVEIk 2015ean landutako “Hezkuntza-bikaintasunerantz” izeneko lan-dokumentua da, hezkuntza-sistemak ekitatearen

eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz aurrera egin dezan diagnostikoa egiten duena eta hainbat proposamen planteatzen dituena.

- ✓ Euskadiko Eskola Kontseiluak aurkeztutako hobetzeko proposamenak, EAEko 2012-2013ko Hezkuntzari buruzko txostenean honako hau esaten baitu hamalaugarren proposamenean: *“(P14) Adierazleen ikuspegi orokorragoarekin, ekonomikoez bestelakoak ere barnean hartuz, Kontseiluaren ustez interesgarria da Eusko Legebiltzarraren 2012ko ekainaren 14ko erabakia, honako helburu hau zuena: “euskal hezkuntza-sistemaren azterketa objektibo eta gardena lantzeko baliagarriak izango diren hainbat adierazle ezartzea”. Kontseiluak bere txostenetan garatzen dituen lanekin bat etorriz, erabaki hori gauzatzea espero du.”*
- ✓ Heziberri 2020 planaren “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua”-n eta Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Hezkuntzako dekretuetan eta etorkizuneko Batxilergokoan ezarritako ibilbidea hartzen du erreferentziazat Hobetzeko plan honek.
- ✓ Era berean erreferenteak dira Europako Batzordearen “Hezkuntza eta Prestakuntza 2020” izeneko europar lankidetzarako esparru estrategikoa (ET 2020) eta UNESCOren “Hezkuntza berraztertzea: Mundu osoko ongia lortzeko bidea?” dokumentua (2015).

Azken batean, Hobetzeko planean hartzen diren neurri guztiak, hala ildo estrategikoei nola laguntza-tresnei lotutakoak, justifikatzen dira eta bidezkoak dira ikasleen irteera-profilean definituta dauden oinarrizko kompetentziak, hala zeharkakoak nola diziplina baitako espezifikoak, lortzen laguntzen badute. Horrenbestez, oinarrizko kompetentzia guztietako ikasleen emaitzen ebaluazioa izango da adierazlea arrakasta balioesteko edo Hobetzeko planaren egokitzapen-neurriak hartzeko.

1.2.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA-SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA

Hobetzeko plan orok bere inguruneko beharrizanei erantzun behar die, eta horregatik garrantzitsua da EAEko hezkuntza-sistema osatzen duten ikastetxeen testuinguruaren berezitasunak aldeaz aurretik azaltzea. Era berean ezinbestekoa da Europar Batasunak 2020. urterako dituen helburuak kontuan izatea eta nazioarteko eremuan beren jardun-maila dela medio ospea duten hezkuntza-sistemetarantz begiratzea. Azken bi alderdi horiek gure hezkuntza-sistemaren hobetze-arloak zeintzuk diren zehazkiago finkatzen lagunduko digute.

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-testuingurua

EAEko hezkuntza-sistemak aipatu beharreko ezaugarri espezifiko batzuk ditu. 1979. urtean Autonomia Estatutua onartu zenetik jardun duten gobernuek doikuntzak egin behar izan dituzte estatuko legeetara egokitzeko eta, horrela, euskal ikasleen segurtasun juridikoa bermatzeko. Hain aldakorra izan den testuinguru batean erronka eta zailtasun ugari aurrez aurre izan dituen arren, EAEko hezkuntza-sistema aurrerantz jarraitzeko gai izan da, eta jardun diren sail desberdinek sistema metatuz joan den hezkuntza-esperientzia ugarien oinarrien gainean egin dute lan beti. Esperientzia horiek hezkuntza-komunitateak partekatu duen kultura pedagogiko bat eraikitzen lagundu dute.

Transferentzia-prozesuaren ondoren, hezkuntzaren zerbitzu publikoaren prestazioa ikastetxe publikoen (gutxi gorabehera ikasleen % 54,7¹) eta ikastetxe itunduen (gutxi gorabehera ikasleen % 45,3²) bitartez egiten da, eta itundu gabeko zentro pribatuak oso gutxi dira.

Euskal Autonomia Erkidegoa autonomia-erkidego elebiduna da (ikus 10/1982 Legea, euskararen erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa). 1983an, ikasgeletan hiru hizkuntza-eredu ezartzen dituen Dekretua argitaratu zen: A eredia (funtsean gaztelaniaz emandako irakaskuntza, euskara irakasgai soil izanik), B eredia (eredu honetan aniztasun handia dago, euskarazko eta gaztelaniazko ordu kopuruaren arabera) eta D eredia (euskaraz emandako irakaskuntza, gaztelania irakasgai soil izanik). Euskalduntzea izan da hezkuntza-sistemak izan duen erronka handietako bat, oso egoera larritik abiatuz (irakasleen %5 bakarrik ziren gai beren hezkuntza-jarduna euskaraz garatzeko) irakasleak nahiz ikasleak euskalduntzeko, eta, hedaduraz, gizartea euskalduntzen laguntzeko erantzukizuna bere gain hartu baitzuen. Gaur egun irakasleen

¹ Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Estatistika Zerbitzuaren matrikulazio-datuak. 2014-15. Ikasturtea.

² Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Estatistika Zerbitzuaren matrikulazio-datuak. 2014-15. Ikasturtea.

oso zati txiki batek ez dauka eskolak euskaraz emateko gaitasunik (% 5 baino gutxiago Eskola Publikoan)³. Ikasle gehienak B eta D ereduatan matrikulatzen dira. Haur Hezkuntzako ikasleen 2015-2016⁴ ikasturterako matrikulazioak ere joera hori gero eta handiagoa dela erakusten du: ikasle guztien % 4,2 bakarrik eskolatu da A ereduari, % 18,7 B ereduari eta % 77,1 D ereduari.

Azkenaldian ikastetxeetan ingelesaren presentzia handitzeko apustua egin da, eta gero eta ikastetxe gehiago daude irakaskuntza hiru hizkuntzatan edo gehiagotan ematen dutenak. Hala eta guztiz ere, ikastetxe horien artean aniztasun handia dago, hizkuntza bakoitzaren (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa edo beste batzuk) ordu-presentzia handiagoa ala txikiagoa den kontuan izanik. Ikastetxeek landutako Proiektu Eleaniztunen kopurua⁵ handitu egin da, eta dagoeneko 315 ikastetxe dira 2015-2016 ikasturtean.

1982. urteaz geroztik, Hezkuntza Bereziko Planaren argitaratzearekin, hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleak ohiko ikastetxeetan integratzeko apustua egin zen, eta hezkuntza bereziko zentro gehienak itxi egin ziren. Plan horren ondorioz ikastetxeak baliabide pertsonal eta materialez hornitu ziren, hala nola: laguntzako irakasleak, irakasle aholkulariak Lehen Hezkuntzan eta orientatzaileak Bigarren Hezkuntzan, hezkuntza-laguntzan espezialistak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, logopedak, oztopo arkitektonikoen ezabaketa, laguntza teknikoak, ikasgela egonkorak eta zereginen ikaskuntzarako ikasgelak sortzea, eta abar. 1998an, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbarkar eta integratzailearen esparruan antolatzen duen ekainaren 23ko 118/1998 Dekretua argitaratu zen, ezgaitasunak dituzten pertsonen hezkuntza-erantzun egokia emateko eta jatorrizko ezberdintasunak orekatzera bideratutako neurriak ezartzeko hezkuntza-sistemaren barruan. Orduz geroztik, ikasleen aniztasunari lotuta dauden plan eta programa ugari gauzatu dira, batez ere zailtasunak dituzten ikasleei laguntzera bideratuak. Bereziki aipatzekoak dira eskolazte berantiarreko etorkinen eta beren familien harrera, gizarteratze eta hizkuntza-errefortzuarekin lotutakoak.

Hezkuntza-sistemak ikastetxeei lagunduz hainbat ikuspuntutatik lan egiten duten zerbitzuak ditu: Ikuskaritza, Berritzeguneak eta Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Horrez gain, hainbat prestakuntza- eta berrikuntza-plan daude, irakasleak eta ikastetxeak aldaketetara egokitu ahal izateko. Ikastetxe publikoei bideratutako deialdietako parte-hartzea⁶ nabarmen handitu da ikasturte honetan aurreko ikasturtearekin alderatzen badugu. Horrela, 2014-2015. ikasturtearekin alderatuz, 2015-2016. ikasturtean Sare_Hezkuntza Gelan izeneko proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua % 59 handitu da; % 131,48 handitu dira berrikuntza zientifiko eta teknologikoko eta ekintzailetzako proiektuak; % 25,92 proiektu integralak,

³ Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Estatistika Zerbitzua

⁴ Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Estatistika Zerbitzuaren matrikulazio-datuak

⁵ Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Berrikuntza Zuzendaritzaren datuak

⁶ Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Berrikuntza Zuzendaritzaren datuak

eta % 19,85 hezkuntza-bikaintasunerantz bideratutako prestakuntza-proiektuak; eta azkenik, % 54,34 handitu dira Partekatuz ikasi⁷ proiektuak. Ikastetxe itunduek, bi sareei prestakuntza ematen dieten Berritzeguneez gain, irakasleen prestakuntza-sistema propioak dituzte eta prestakuntza eta berrikuntzarako deialdietan nabarmen handitu dute beren parte-hartzea. Hezkuntza-bikaintasunerantz bideratutako proiektuetan parte hartzen duten ikastetxeak 122⁸ dira. Partekatuz ikasi proiektuan ere 15 ikastetxe itunduk hartu dute parte lehen aldiz, eta Sare_Hezkuntza Gelan proiektuko parte-hartzea ere handitu egin da.

Hezkuntza-sistema guztiek mundu osoan, eta EAeko hezkuntza-sistemak bereziki, egin duten beste aldaketa handietako bat teknologia berriak ikastetxeetan eta geletan sartzeari lotuta dago. Eskola 2.0 programarekin ikastetxeak baliabide teknologiko berriez hornitzen hasi ziren, batez ere ikasleei zuzenduak eta irakasleak prestatzera bideratuak. Berrikuntza-ildo berri hori garatu egin da eta hainbat proiektu estrategiko gaineratu zaizkio. Proiektu horien artetik azpimarratzekoak dira euskarri digitaleko materialen sorkuntzari lotutakoak (EIMA 2.0) eta ikastetxeek beren teknologia-heldutasuneko maila egiaztatzen duen ziurtagiria lor dezaten bideratzen dena (Heldutasun Teknologiko eta Pedagogikoko Eredua). Gaur egun hezkuntza-sisteman 360 ikastetxek dute ziurtagiria: 79k oinarritzko mailakoa, 261ek tarteko mailakoa, eta 20k maila aurreratua⁹.

Ebaluazioari dagokionez, 2009. urtetik hona, Diagnostiko ebaluazio zentsalak burutu izan dira Euskadiko ikastetxe publiko zein itunduetan, bai Lehen Hezkuntzan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Ebaluazio horietako emaitzak, ikastetxeek erabiltzen dituzte, euren hobetzeko planak taxutzeko, eta eskumena duen Sailak, sistema osoa hobetzea helburu duten proiektuak eta planak egiteko.

Beste datu interesgarri batzuk Lehen Hezkuntza amaitzerakoan mailaz igotzen diren ikasleen ehunekoari (% 97) buruzkoak¹⁰ eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulazioa lortzen duten ikasleen ehunekoari (% 90,9) buruzkoak¹¹ dira. Gutxienez ere kurtso bat errepikatzen duten ikasleen ehunekoari dagokionez¹², % 8,5 dira Lehen Hezkuntzan eta % 15 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Datu horiek positiboak dira Espainian lortu dituztenekin konparatuta (% 12,4 eta % 25, hurrenez hurren), baina oraindik ere ELGaren batezbestekotik (% 6,4 eta % 5,2) urrun uzten gaituzte, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

⁷ Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren datuak

⁸ Iturria: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren datuak

⁹ Iturria: Berrikuntza Zuzendaritzaren datuak (Berritzegune Nagusia)

¹⁰ Iturria: ISEI-IVEIren 2014ko Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema

¹¹ Iturria: ISEI-IVEIren 2014ko Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema

¹² Iturria: OCDE. PISA txostena, 2012, IV. bol. B2 eranskina

Europar Batasunaren helburuak 2020. urterako

Europar Batasuneko Ministro Kontseiluak, 2009ko maiatzaren 12ko bileran, hainbat ildo estrategiko hartu zituen. Ondoren, Europako Batzordearen 2010eko martxoaren 3ko “COM (2010) 2020, EUROPA 2020. *Hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaileko estrategia*” Komunikazioak 2020. urterako hezkuntza-helburu gisa ezarri zituen eskola behar baino lehen uztearen tasa % 10etik beherakoa izatea eta goi-hezkuntza duten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleak gutxienez % 40 izatea. EAEko Hezkuntza Sistemak dagoeneko gainditu ditu bi helburu horiek. EUSTATen 2014. urteari buruzko azken datuen arabera, eskola behar baino lehen uztearen tasa % 7,2 da, Europar Batasuneko (EB-28) % 11,1 eta Espainiako % 21,9. 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen goi-hezkuntzako mailaren datuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoa % 48,9ra iristen da, Europar Batasuna (EB-28) % 37,9ra eta Espainia % 42,3ra.

Hezkuntzan 2020. urterako lortu beharko diren EBren beste erreferentzia-indize batzuei dagokienez¹³, esan dezakegu lehendik aipatu ditugun EBren funtsezko bi helburuez gain beste helburu batzuk ere lortu ditugula hala nola: 4 urtetik gorako neska-mutilen % 95 gutxienez eskolatzea, eta Irakurketako (% 14,4) eta Zientzietako (% 11,7) oinarrizko kompetentzietan errendimendu txikia duten 15 urteko ikasleak % 15 baino gutxiago izatea. Horrez gain, beste bi helburu lortzekotan gaude: 25 eta 64 urte bitarteko helduen % 15ek gutxienez etengabeko ikaskuntzan parte hartzea (% 13,7), eta Matematikako (% 15,5) oinarrizko kompetentzietan errendimendu txikia duten 15 urteko ikasleak % 15 baino gutxiago izatea.

Bestalde, DBHko lehen zikloko ikasleen % 75 atzerriko bigarren hizkuntza batean matrikulatuta egoteko helburua EBk ezarrita duen arren, gure erkidegoak bi hizkuntza ofizial dituela kontuan izan behar da. Horren eraginez, EAEko ikasleen %100ak atzerriko lehen hizkuntza ikasten dute eta, praktikan, euren hirugarren hizkuntza da. Atzerriko bigarren hizkuntza, berriz, euren laugarrena hizkuntza da, eta, hori dela eta, 2015-2016 ikasturtean ikasleen %21 inguru matrikulatu da atzerriko bigarren hizkuntzan.

¹³ Iturria: HEZKUNTZA EUSKADIN, 2012-2013. Euskadiko Eskola Kontseilua.
<http://www.consejoescolardeeeuskadi.hezkuntza.net>

Munduan jardun-mailarik onena duten hezkuntza-sistemak eta EAEko hezkuntza-sistemaren egoera

ISEI-IVEIk landu duen “Hezkuntza Bikaintasunerantz”¹⁴ txostenak nazioarteko kanpo-ebaluazioetan emaitza bikainak lortzen dituzten hezkuntza-sistemen ezaugarriak aztertu ditu eta honako eremu hauetan taldekatu ditu: hezkuntza-sistema oro har, ikastetxea, irakasleak eta, azkenik, ikasleak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua.

Gure hezkuntza-sistemaren egoera aztertzeko, haren indarrak eta ahuleziak zeintzuk diren azpimarratzea komeni da. Heziberri 2020 Planaren barruan hezkuntza-sistemaren ekitate eta kalitatean bikaintasunerantz aurrera egiteko funtsezko jardun-ildoak definitzen lagundu du azterketa honek.

Sistemaren indarren artean honako hauek azpimarra daitezke:

- Hezkuntza-uzte goiztiarreko ehunekoa:
Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa osatu ez duen eta 2014. urtean inolako hezkuntza edo prestakuntza motarik jarraitzen ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleak % 7,2 dira Euskal Autonomia Erkidegoan, Europar Batasuneko 28 herrien batezbestekoa % 11,1 da, eta Espainiakoa % 21,9¹⁵.
- Ikasle guztien hezkuntza-premieko arreta:
Ikasle guztien hezkuntza-premiei dago lotuta, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak nahiz hezkuntza-laguntza, espezifikoa nahiz ez, behar dutenak barnean hartuz. Euskal hezkuntza-sistema hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen integraziotik inklusiorantz doan sistema bat planteatzera bideratu da, eta ikasleen aniztasun osoari erantzun nahi dio, ikasle kalteberei arreta berezia eskainiz, eta horretarako hezkuntza-laguntzako hezkuntza-premia espezifikoen zerbitzurako bitarteko eta baliabideen sare bat sortu du.
- Kanpo-ebaluazioko sistema:
Ikastetxeek kanpo-ebaluazioetan parte hartzen dute: PISA, TIMSS eta Ebaluazio Diagnostikoak. Azken horiek 2009. urtean ezarri zirenetik eta ia urteroko aldizkakotasunarekin, emaitzak aztertzen dira eta ikastetxeetara informazioa itzultzen da, beren egoeraren berri izan dezaten eta egoera hobetzeko neurriak hartu ahal izan ditzaten.

¹⁴ ISEI-IVEI (2015): *Hezkuntza Bikaintasunerantz*. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Bilbao. <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net>

¹⁵ EUSTAT

- Hobetzeko planak:
ikastetxeek egiten dituzte ebaluazio diagnostikoetan eta barne-ebaluazioetan lortutako emaitzak oinarritzat hartuz, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta zonaldeko Berritzegunearen aholkularitzarekin. Helburu nagusia ebaluatutako kompetentzietan ikasleen errendimendu-maila hobetzea da.
- Ekitatea:
PISA 2012an, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen % 74 matematikarako kompetentzian tarteko errendimendu-mailatan (2, 3 eta 4) daude; % 81 irakurketarako kompetentzian eta % 83 zientziarako kompetentzian.
- Egokitasun-tasa:
PISA 2012an, Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urteko ikasleen % 77,9 beren adinaren arabera dagokien hezkuntza-mailan daude kokatuta. ELGA osatzen duten herrien batez besteko portzentajea % 85,6 da. Estatu espainolekoa % 66 da.

Sistemaren aukeren artean honako hauek azpimarra daitezke:

- Arreta pertsonalizatua:
Nazioarteko ebaluazioetan errendimendu-maila altuetan ikasleen kopurua handitu da (OCDEren batezbestekoaren azpitik), ikaskuntza-arazorik ez duten ikasleek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzera bideratutako ikastetxeko laguntza-egituren garapenaren bidez, eta ikasgelan elkarlana, berdinen arteko ikaskuntza eta abar bultzatzen dituzten metodologiak praktikan jarritz.
- Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzaren alderdiak. Hezkuntza-konpromisoa:
Jardunbide egokiak daude ikaskuntza-komunitateetako ikastetxeetan, eta ikastetxeetan indartzen ari da baterako hezkuntzako proiektuen bitartez. Hala eta guztiz ere, ikastetxeek eta familiek hezkuntza-prozesuan pertsoneri elkarrekin emandako laguntza eta haien konpromiso komuna, planetan gutxitan biltzen den alderdia da, beren hezkuntza-kalitatea dela medio erreferentzia gisa hartzen diren beste sistema batzuetan garrantzi handia duen arren.
- Irakasleen ebaluazioa:
Ebaluazioa oinarritzko puntua da beti, eta puntu horretatik hartzen dira jardun profesionala hobetzera, zereginean gogobetetze eta motibazio handiagoa izatera, eta jardun-maila ona duten profesionalak beren bikaintasunak sisteman eragina izan dezan aintzat hartzera bideratutako neurriak.

- Irakasleen karrera profesionala:
Ibilbide profesionalan aurrerantz egiteko posibilitatea, lan-bizitzan espektatiba handiei eta motibazioari eusten laguntzen duen hobetze-eskaintza da beti.
- Irakasleen gizarte-estatusa:
Ez dago profesionalaren ordainsariari lotuta, lanbideak duen gizarte-balioespenari lotuta baizik.
- Ikastetxe publikoen autonomia:
Aurrerantz jarraitu behar da ikastetxe publikoen autonomia garatzeko eta sistemaren efizientzia areagotu egin dadin.
- Eskolatzeko inklusioa eta ikasleen aniztasunarekiko erantzuna:
Nahiz eta EAEko hezkuntza sistemaren indargunea, hezkuntza-premiak dituzten ikasle guztiei laguntza ematea izan, ikasle kalteberenak direnei (etorkinak, beharizan espezifikoak eta hezkuntza-laguntzako bereziak, eta abar) arreta eskaintzeak sistemaren erronketako bat izaten jarraitzen du.
- Ikaskuntzarako espazioaren eta denboraren diseinua:
Espazioen, altzarien, ekipamenduen eta irakas-denboraren eta irakastekoa ez den denboraren diseinua eta banaketa berrikusi behar da, oinarritzko kompetentzien garapenerako baldintzak errazteko.

McKinsey&Company¹⁶ txostenak dio emaitzak nabarmen hobetu daitezkeela. Txostenaren arabera, ELGAko herrietako hezkuntza-errendimenduaren azterketak adierazten du estatistikoki alderdi sozioekonomikoek (adibidez BPG) edo etorkinen kopuruak errendimenduan %16ko eragina dutela, eta bestalde, herri horietan hezkuntza-errendimenduaren gainerako %84 beste alderdi batzuen arabera dela, adibidez familia-sarearen egonkortasuna eta kalitatea, irakasleen prestakuntza-maila eta ikastetxeetako hezkuntza-prozesuen kalitatea.

Hezkuntza-sistemak nabarmen hobe daitezke, haien abiapuntua edozein izanik ere. Oso errendimendu desberdinak dituzten eta nahiko denbora-epe laburrean PISA ebaluazioan hobekuntza handiak lortu dituzten hezkuntza-sistemen hainbat adibide daude (Mexiko, Turkia, Hungaria, Japonia). Txostenak dio gure autonomia-erkidegoak, 494 puntutik abiatuta¹⁷, Finlandiaren parean jartzeko besteko hobekuntzarako tarte duela.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da abiapuntu desberdinetan dauden hezkuntza-sistemak hobetzeko ez direla esku-hartze berdinak behar. Ildo horretan, EAEn kasuan

¹⁶ CALLEJA, F.; COLLADO, S.; MACÍAS, G.; SAN JOSÉ, C. (2012): *Educación en España-Motivos para la esperanza*. McKinsey&Company

¹⁷ Informeak, PISA 2009ko Irakurmenaren Ulermena hartzen du oinarritzat

abiapuntu on batetik oso on batera igaroko litzateke, eta denbora igaro ahala abiapuntu bikain batera. Onak diren eta oso on bihurtu nahi duten sistementzako proposatzen diren neurriak batez ere irakaskuntzaren profesionalizazioari eta ikastetxeen autonomiari lotuta daude; eta bikaintasunerantz bideratzeko proposatzen direnak, berriz, ebidentzia zientifikoetan oinarritzen den berrikuntzari eta berdinen arteko ikaskuntzari lotuta daude.

1.3. HOBETZEKO PLANAREN PRINTZIOPIO ANTOLATZAILEAK

Hobetzeko planaren osagai guztiek honako hezkuntza-printzipio hauek oinarritzat hartu eta sustatu nahi dituzte:

1.3.1. Heziberri 2020 planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruarekiko koherentzia

Hobetzeko planak Heziberri 2020 planaren “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua” osatzen duten printzipioak oinarritzat hartu eta indartu egiten ditu. Horrela, Oinarrizko Hezkuntza belaunaldi berriak helduarorako prestatzeko baliatu behar den hezkuntza-aldia da, oinarri sendoak ezarriz bizitza osorako hezkuntzarako eta beren bizitzak zentzuz bideratzeko, beren etorkizunak aukeratzeko, beren aukeren erantzule izateko eta modu aktibo, kritiko eta arduratsuan parte hartuz gizarteratzeko gai izan daitezen.

Horretarako, Oinarrizko Hezkuntza amaitutakoan ikasle guztiek oinarrizko zehar-kompetentzien eta diziplina baitako oinarrizko kompetentzien lorpen-maila jakin batera iritsi behar dute, helduarora inkorporatzeko eta etengabeko ikaskuntzaren bitartez kompetentzia horiek garatzen, mantentzen eta eguneratzen jarraitzeko lorpen-maila, alegia.

Planteatzen diren ildo estrategikoek kompetentzietan oinarritutako hezkuntza baterantz bideratutako curriculumetan sartutako aldaketa indartuko dute. “Kompetente aritzeko”, orotariko baliabideak modu integratuan mobilizatuz konpondu behar dira erronka edo problema diren egoerak. Jarduera bat egiten den edo gertaera bat garatzen den ingurunea edo testuingurua da "egoera", eta "problema", berriz, zer gai, zeregin, proiektu, erronka eta abar konpondu behar den egoera horretan, ekintza kompetenteen bidez. Irteera-profilari begira, egoeraren kontzeptua eta egoera esanguratsuak hautatzea ardatza da kompetentzien araberako hezkuntzan, egoera batean konpondu beharreko problemarik gabe ez baitago aukerarik kompetente jarduteko.

Curriculum-dekretu eta -eranskinetan ezartzen den ikasleen irteera-profilean, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzen dutenean lortu behar dituzten oinarrizko kompetentziak ezartzen dira. Oinarrizko kompetentzia horiek, hala zeharkakoak nola diziplina baitako espezifikoak, lortu beharreko jomuga dira, eta Hobetzeko planaren osagai duten guztiek hori lortzen lagundu behar dute.

1.3.2. Inklusioa, ekitatea eta bikaintasuna

Oinarrizko Hezkuntzak hezkuntza-eskubidea bermatu behar die pertsona guztiei; beraz, zuzentasun eta justizia sozialaren planteamendu etiko batetik, hezkuntzak aukera-berdintasuna eskaini behar du, inolako bazterketarik gabe (ahalmena, kultura, etnia, erlijioa, generoa, sexua eta abar), eta eraldatu egin behar ditu diferentzia ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak.

Oinarri horren arabera, bai Administrazioak eta hezkuntza-arduradunek bai hezkuntza-komunitateko profesionalek eta partaide guztiek bultzatuko dute inklusioa, hau da, hezkuntza arrakastatsua, barneratzailea eta pertsonalizatua, oinarrizko hezkuntza amaitu arte. Modu osagarrian, hezkuntza-sistemak erronkatzat hartu behar du ahalik eta ikasle gehienak bikaintasunera eramatea.

Hobetzeko plana osatzen duten guztiek inklusioa, ekitatea eta hezkuntza-bikaintasuna modu bateratuan sustatzen lagundu behar dute. Bikaintasunak ekitatearekin bat egin behar du, eta horrela, hezkuntza-maila onak justifikatzen dira baldin eta aldi berean kaltetuenak eta ahulenak diren taldeei baliabide gehiago emanaz laguntzeko gizarte- eta hezkuntza-politikak garatzen badira.

1.3.3. Gizarte eta kultura, parte-hartzea eta gardentasuna

Hezkuntza-agente guztien ardura da (familia, eskola, administrazio publikoa, tokian tokiko gobernuak, hedabideak, elkarteak, gizarte- eta kultura-erakundeak, etab.), agente bakoitzaren erantzukizuna eta denen arteko elkarlana oinarri hartuta, eskolaldiaz kanpo ere hezkuntzaren xedeak lortzeko ezinbestekoak diren funtsezko konpetentziaz jabetzen laguntzea ikasleei. Hezkuntza-prozesu horretan, eskolak bere funtzioa partekatzen du hezkuntza-agente guztiekin, eta bere hezkuntza-eredua "hezkuntza-komunitatea"ren baitan kokatuta dago; hezkuntza-prozesu formal, ez-formal eta informalak hartzen ditu bere baitan eta elkarlotu egiten ditu, pertsona guztiak bizi osoan zehar prestatu, sustatu eta garatze aldera, sinergiak ezarriz ikastetxeetako hezkuntza-komunitateen, udal-politiken eta agente soziokulturalen esku-hartzeen artean.

EAEko hezkuntza-sistemaren zeregina da euskal hizkuntza eta kultura transmititzea, ekintza positiboaren bitartez sustatuz, zaintzeko eta erabiltzeko, egungo harremanen eta informazio-trukearen prozesuak arautzen dituzten mekanismoekin bat egiteko. Hezkuntzak kultura unibertsala eta harreman-kulturak bateratu behar ditu, bizikidetzaren eta kultura- eta hizkuntza-inklusioaren garapenean lagunduz.

Gainera, gizarte demokratiko batek gardentasuna, erantzukizuna, zorrotasuna eta gizartearen parte-hartzea eskatzen ditu etengabe hezkuntza-sistemaren kontrola egiterakoan. Gizarte demokratiko batek, euskal gizarteak adibidez, bere hezkuntzaren errealitatea ezagutzeko eskubidea du eta datu eta informazio fidagarriak eta

kontrastatuak eduki behar ditu, belaunaldi berriak prestatzeko hezkuntza-sistemaren eskura jarritako giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta teknikoak zuzen eta modu egokian erabiltzen direla egiaztatzeko. Testuinguru berri horretan, hezkuntza-sistemaren kontrolerako parte-hartze demokratikoa eskakizun saihetsezin bihurtzen da. Administrazioa ez da eskola-bizitza kontrolatzeko eskumena duen bakarria, izan ere, herritarrek eta gizarteek zeregin horretan parte hartu behar baitute hezkuntzaren kontrolean eta kudeaketan parte hartuz.

Hobetzeko planean ezarritako helburuak lortzeko xedez modu sendoan aurrerantz egiteko, hezkuntza-agente guztien erantzunkidetasuna ezinbestekoa da. Ildo horretan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, baita ikastetxeek ere, gainerako gizarte-eta hezkuntza-agenteekin lankidetzan jarduteko ekimenak ezarri behar dituzte.

1.3.4. Ebaluazioa eta kontuak ematea

Mundu zabaleko hezkuntza-komunitateak argi ulertzen du gaur egun ez dela posible ebaluaziorik gabe kalitatezko hezkuntza-sistema bat eraikitzea. Ebaluazio- eta ikerketa-prozesuek errealitate jakin baten ezaugarri, indar eta ahuleziak ezagutzeko aukera ematen digute, eta, horrenbestez, baita indarrak sendotu eta ahuleziak zuzentzekoa ere.

Ikastetxeen kalitatea eta ikasleen prestakuntza hobetzeak izan behar du, zalantzarik gabe, gure ahaleginen ardatz nagusia, baina ezin da pentsatu hezkuntza-sistemaren zati bat bakarrik ebaluatu behar dela, parte hartzen duten gainerakoak prozesu horren barnean hartu gabe, adibidez hezkuntza-administrazioa bera, egun dauden programa estrategikoak edota hainbat zerbitzu. Horrela, hezkuntza-sistema osoa ebaluazio-xede bihurtzen da.

Ildo horretan, ezarritako lorpen-adierazleen betetzearen eta hobetzeko planean bildutako ildo estrategikoen helburu bakoitzaren eta proiektuen inpaktu-mailaren jarraipena egitea eta horiek kuantitatiboki eta kualitatiboki ebaluatzea beharrezkoa da.

1.3.5. Hobetzeko planaren bideragarritasuna, progresibitatea eta jarraipena

Hobetu daitezkeen eremu eta alderdi asko daude. Hobetzeko plan honetan hezkuntza-sistemaren inklusio, ekitate eta bikaintasunean aurrerantz egiteko estrategikotzat jotzen diren sei ildo hautatu dira. Ildo horien barnean, koherentetzat eta bidezkotzat eta era berean bideragarritzat jotzen diren helburuak eta lorpen-adierazleak formulatu dira.

Hobetzeko plan hau Heziberri 2020 Planaren zati bat izanik, “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua” (lehen proiektua) eta curriculum-dekretuak (bigarren proiektua) praktikan jartzeari lotuta dago. Heziberri planak 2020ra arte duen denbora-tartearekin bat etorritik, ildo estrategiko bakoitzaren helburuei dagozkien lorpen-adierazleak beharrezkoak dira Hobetzeko plana hasterakoan (2015-16 ikasturtea),

hasierako egoera ezagutzeko, eta Hobetzeko plana amaitzerakoan (2015-16 ikasturtea), azken egoera ezagutzeko. Helburuak modu progresiboan lorpen-adierazle bihurtzeak hobetzeko plan osoaren garapen-prozesuaren ikuspegi globala erraztuko du, baita haren jarraipena eta, hala badagokio, berrikuspena ere.

2.- ILDO ESTRATEGIKOAK

Ondoren aurkezten diren ildo estrategikoetako bakoitzak diagnostikoa eta hobetzeko alorrak eta baita helburuak eta lorpen-adierazleak ere biltzen ditu 2015-2016 eta 2019-2020 ikasturteetarako.

Dokumentuaren 1. Eranskinean ildo estrategikoen eta haien helburuen laburpen-koadroa aurkezten da.

2.1.- HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PRESTAKUNTZA (L1)

2.1.1.- SARRERA

Hezkuntza-komunitateak eragin nabarmena du ikasleen ikaskuntza-prozesuetan. Ikasleek berdinen artean eta helduekin testuinguru formal eta ez-formaletan ezartzen diren interakzioen bitartez ikasten dute. Ikasle bakoitza osorik garatzea lortzeko, ezartzen dituen harreman guztien bitartez, bere ikaskuntza-prozesuan eragina duten guztiek printzipio, helburu eta jardun-ildo berdinak izatea beharrezkoa da. Horretarako ezinbestekoa da hezkuntza-komunitate osoaren prestakuntza, irakasleak, zuzendaritza-taldea, irakasle ez diren langileak eta familiak barne.

Eremu akademikotik datozen ikerketek, estatuko eta nazioarteko organismo eta erakundeek sustatutako azterlanek, eta Europar Batasunaren esparruan estatu kideei egindako gomendioek irakasleen eta zuzendaritza-taldeen gaitasun profesionala hobetzera bideratutako politikei arreta berezia eskaini diete, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea hobetzeko tresna erabakigarria delako.

Emaitzarik onenak dituzten hezkuntza-sistemen ezaugarrietako bat da bertako irakasleek prestakuntza sendoa, bokazio handia eta motibazio handia dituztela eta beren ikasleen aurrerapenarekin konprometituta daudela. Ildo horretan, hezkuntza hobetu nahi duen edozein aldaketa, aldaketa horren agente nagusiak, hots, irakasleak, baldintzatzen du, irakaskuntza-kalitatearen hobekuntzak hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza baldintzatzen duelako.

Nazioarteko txostenek, adibidez McKinsey Txostenak (2007)¹⁸ eta lidergoari buruzko OCDEren azterlanak (2008)¹⁹, ondorioztatzen dute ikastetxeko zuzendaritza-taldea irakaskuntza-lorpenetan eraginik handiena duen bigarren barne-faktorea dela,

¹⁸ BARBER, M. y MOURSED, M. (2007): *Cómo hicieron los sistemas educativos con mejor desempeño del mundo para alcanzar sus objetivos*. McKinsey&Company.

¹⁹ OCDE (2008): "Improving School Leadership". *Volumen 2: Case Studies on System Leadership*. OCDE

irakasleen irakaskuntza-ekintzaren ondoren. Hainbat autorek egindako azterlan askok, era berean, frogatzen dute zuzendariaren zereginak, zehazki, ikastetxearen kalitatean eragin handia duela.

Familiei dagokienez, haien prestakuntza eta parte-hartzea funtsezko kate-maila da hezkuntza-arrakastaren ekuazioan. Familiak ikastetxera hurbiltzeak, koordinatuta lan egiteak, ondorio gisa ekartzen du eskolarekiko konfiantza handitzea, bizikidetzaren hobetzea, ahaleginak koordinatzea, eta hurrek irakaskuntzan oinarrituta jasotzen dituzten elkarreraginak handitzea. Komunitate osoak elkarrekin lan egiteak eskola gune seguru bihurtzea, absentismoa gutxitzea, ikasleek ikasteko aukera gehiago izatea eta, beraz, ikaskuntzaren emaitzak modu ikaragarrian hobetzea.

Diagnostikoa

2013-2014 ikasturteko estatistikaren arabera, EAEko hezkuntza-sisteman, lanbide-heziketa salbu, erregimen orokorreko irakaskuntzetan irakasle-lana egiten dute 33.317 irakaslek; 21.177 irakaslek sare publikoan eta 12.140 irakaslek sare pribatu itunduan, guztira 1.003 ikastetxetan (750 publikoak dira eta 253 itunduak).

2013ko abenduaren 31n irakasleen % 40,54k 50 urtetik gora eta 65 urtetik behera dituzte (% 45,57 sare publikoan, % 31,78 sare itunduan), eta beraz, epe laburrean erretiroen kopurua handia izango da.

Estatistika beraren arabera, irakasleen % 85ek gutxi gorabehera Hezkuntzako 2. Hizkuntza Eskakizuna edo goragokoa du egiaztatuta (% 88,55 sare publikoan, eta % 78 sare pribatuan).

Sare publikoko irakasle guztien % 13,3k²⁰ eta sare itunduko irakasle guztien % 14k²¹ B2 maila dute, ingelesa irakasteko eskatzen den maila, alegia. Gainera, sare publikoko irakasleen % 8,1ek²² eta sare itunduko irakasleen % 5,4k²³ C1 edo C2 maila dute.

Hasierako prestakuntzari dagokionez, EHUK 880 plaza inguru eskaintzen ditu urtero Haur Hezkuntzako gradu-titulazioan eta Lehen Hezkuntzako gradu-titulazioan. Plaza horiek lortzeko ebaki-notak azken urteotan handitu egin dira 2010-2011ko 7 edo 8 puntuetatik 2015-2016 ikasturtean 9 puntu gainditu arte. Beraz, esan daiteke hezkuntzak talentua, termino akademikotan neurtzen dena behintzat, erakartzen duela. EHU, Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako gaitzen duen Masterra egiteko urtero eskura dauden plazak 240 dira. Titulazio horiek eskaintzen dituzte, era berean, Deustuko Unibertsitateak (300 plaza Lehen Hezkuntzako Graduan eta 75 plaza Haur Hezkuntzako Graduan, gehi 175 plaza gaitzen duen Masterrean) eta Mondragon Unibertsitateak (210

²⁰ 2015eko azaroko datuak

²¹ 2013ko datuak

²² 2015eko azaroko datuak

²³ 2013ko datuak

plaza Lehen Hezkuntzako Graduan eta 210 plaza Haur Hezkuntzako Graduan, eta 40 plaza gaitzen duen Masterrean), estatuko gainerako unibertsitateez gain. Ildo horretan, garrantzi berezia hartzen du unibertsitate ez-presentzialek (adibidez, UNIR) ematen duten hasierako prestakuntzak, edo titulazioak asteburuan irakasten dituzten modalitate malguagoek (Salamanca Unibertsitatea), aldez aurretik unibertsitate-titulazio bat dutenek aukeratu izan ohi dituztenak, eta horien eskaria gero eta handiagoa izango da. Zifra horiek garrantzitsuak dira zenbat profesional eta zein unibertsitatetan prestatzen ari diren adierazten digutelako, baina era berean Hezkuntza Sailak ikastetxeetako praktiketako urteko eskariari aurre egiteko modua aurreikusi behar duelako, izan ere, EAEko unibertsitateetako eskaria 2.000 ikasletik gorakoa delako (practicuma dago graduko 3. eta 4. kurtsoetan eta baita Masterrean ere).

Ingelesez ematen diren eta ikasle guztientzat komunak eta nahitaezkoak diren zenbait jakintzagaiz gain, EAEko Irakasleen Unibertsitate Eskolek “Aipamena atzerriko hizkuntzan” eskaintzen dute Haur hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

2014-2015 ikasturtean eta Prest_Gara Planaren etengabeko prestakuntzarako hezkuntza-baliabideei dagokienez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastaro indibidualetan 4.213 plaza eskaini ditu irakasleen euskarazko prestakuntzarako (ikaskuntza, sakontzea edo hobekuntza), 1.461 plaza atzerriko hizkuntzetako prestakuntzarako eta 4.135 plaza eguneratze zientifiko-didaktikorako. Era berean, guztira 8.853 irakaslek egiaztageria jaso dute ikastetxeetan hainbat arlori buruz proposatu eta egin diren berrikuntza- eta prestakuntza-proiektuetan parte hartu dutelako (eleoniztasuna, ikaskuntza digitala, baterako hezkuntza, bikaintasunerako berrikuntza, hezkuntza zientifikoa, teknologikoa eta ekintzailatzarakoa, eta abar). Gainera, 2013-2014 ikasturteko datuen arabera, Berritzegune nagusiak eta zonaldekoek 611 prestakuntza-jarduera egin dituzte eta jarduera horietan 16.137 profesionalak parte hartzeko aukera izan dute. 2014-2015 ikasturtean Berritzeguneek 782 jarduerako prestakuntza-eskaintza egin dute, eta 19.225 lagunek hartu dute parte. Horrek guztiak esan nahi du ikasturte bakoitzean prestakuntza-eskaintza nahikoa dela irakasle bakoitzak gutxienez ere prestakuntza-jarduera edo -proiektu bat egin ahal izateko, eta gainera beste 1.482 plaza geratzen dira beste profesional batzuen prestakuntzarako.

2014-2015 ikasturteko datuen arabera, inklusibitatea posible izateko, EAEk bideratu dituen baliabide pertsonalak (pedagogia terapeutikoko irakasleak, hezkuntza-laguntzarako espezialistak, entzumen eta hizkuntzako espezialistak, PREE, PRL, Curriculum Aniztasuna eta Hamaika Esku programetarako irakasleak, Bidelaguna programarako monitoreak, ikasle-ijitoen eskolatzea hobetzeko hezitzaileak, hezkidetzarako ikastetxeko arduradunak, eta abar).

Zuzendaritza-taldeen prestakuntzari dagokionez, 2014-2015 ikasturtean EAEko ikastetxe publikoetako 77 zuzendarik Berritzegune Nagusiak emandako 40 orduko Zuzendaritza Taldeen Hasierako Prestakuntza izeneko ikastaroan parte hartu dute. Ikastaro hori, Hezkuntza Sailak zuzendaritza-proiektua aurkeztu gabe izendatutako zuzendaritzei

bideratuta zegoen, 2013-2014 ikasturtean zuzendarien hautespen-prozesuan parte hartu zuten zuzendaritza guztiak prestatu zirelako. Bestalde, EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeak osatzen zituzten 428 irakaslek Berritzegune Nagusiak eta Hezkuntza Ikuskaritzak lankidetzan eman zuten prestakuntza juridikoko saioan parte hartu zuten.

Zuzendaritza-taldeen etengabeko prestakuntzari dagokionez, zonaldeetako Berritzeguneetan egiten diren zuzendarien mintegiak azpimarratu behar dira. Zenbait kasutan eskaintza hori ikasketa-burutzetara eta idazkarizetara hedatzen da.

Amaitzeko, Berritzegune Nagusiaren prestakuntza-eskaintzaren barruan, 2014-2015 ikasturtean zuzendaritza-taldeen prestakuntza hobetzeko ikastaro bat egin da, zereginen kudeaketari, produktibitateari eta IKTei buruzkoa, eta 30 zuzendarik hartu dute parte.

Familien eta irakasle ez diren langileen prestakuntzari dagokionez, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak urtero egindako deialdian, Guraso Elkarteek garatutako jardueren artean, nerabezaroari, sexualitateari, elikadurari eta gurasoen prestakuntzari zuzenean lotutako gaiak jorratu zituzten hitzaldiak eta eztabaida-taldeak azpimarra daitezke.

Hobetzeko alorrak

Irakasleen gaitasun profesionala hobetzeko nazioarte-mailan emaitza ona izan duten neurrien artean honako hauek azpimarra daitezke:

- Irakasle izateko hasierako prestakuntzan sartzeari dagokionez:
 - ✓ Irakaskuntza-gaikuntzarako oso sarbide selektibo baten bitartez prestakuntza-maila handiko profesionalak erakarri, hautatu eta prestatzeko neurriak hartu dira.
 - ✓ Hezitzaileen profesionalizazioari jartzen zaio arreta, eta beraz, irakaskuntzan sartzeko betekizunak handitzen dira.
- Irakasleen etengabeko prestakuntzari dagokionez:
 - ✓ Berdinek eta ikastetxeak bultzatutako ikaskuntza eta garapen propiorako aukerak eskaintzen dituzte irakasleak prestatu eta trebatzeko programek. Prestakuntzari dagokionez, “lankidetzak-praktika edo lankidetzak profesionalak” deitutako ereduak azpimarratu behar dira. Eredu horretan, irakasleek beren berdinekin lankidetzan jardunez ikasten dute, baterako lanak eta eskola irekiak eginez, eta lankideen irakasle aholkulari eta hezitzaileekin. Lankidetzak profesionalak dago ikasgeletan funtzionatzen duena zehatz-mehatz aztertuz eta norberaren eta besteen praktika hobetzeko konpromisoa hartuz.

- ✓ Aurrekari bikainak dituzten irakasle adituei ordu kopurua arintzen zaie gainerako irakasleei lagundu eta entrenatzeko, ikasgelan nola esku hartzen duten erakutsiz (eskola ematen dute), eskola lankidetzan emanez eta, azkenik, irakasleak berak bakarrik nola egiten duen ikusiz (aldez aurretik baimena eskatuz). Lan bateratu hori egiteko denbora-aurreikuspen bat egiten da.
 - ✓ Irakasleek astean arratsalde bat libre dute ikasketa-plana garatzeko eta taldean planifikatzeko (elkarrekiko ikaskuntza).
 - ✓ Arrakasta izan duten hezkuntza-esperientziei buruzko jakintza bideratzen eta partekatzen da, jakintza horiek antolaketari dagokionez eskualdagarri bihurtzeko eta beste pertsona batzuek haiekin ikasi ahal izan dezaten.
- Zuzendaritza-taldeen hasierako eta etengabeko prestakuntzari dagokionez:
 - ✓ Zuzendaritza-postuetan sartzten diren irakasleak hautatu behar dira kontuan izanik kargu horiek beteko dituzten egokienak eta onenak izan behar dutela. Ikastetxe bikain batek zuzendaritza bikaina eduki behar du, eta beraz, zuzendarien hautespen, garapen eta prestakuntza espezifikoa inbertitu behar da ikastetxeetan lidergoa eta ondorengotza bermatzeko.
 - ✓ Zuzendaritza-karguei pizgarriak jarri behar zaizkie onenak zuzendaritza-postuetara aurkez daitezen, postu horietan lidergo sendo bat izatea garrantzitsua baita hobekuntzak lortzeko. Gainera, laguntza jaso behar dute ikastetxea kudeatzeko, eta izapideak eta administrazio-zereginak murriztu eta erraztu egin behar dira, zuzendaritzak bere zereginen zentratzeko, hau da, lidergo pedagogikoan, irakasleen antolaketan eta irakaskuntzan, hezkuntza-helburuak betetzeko.
 - ✓ Zuzendaritzek autonomia izan behar dute irakasleen hautaketa egiteko eta hainbat alderdiri buruzko erabakiak hartzeko, adibidez zereginen eta erantzukizunen esleipena edo irakasleak eguneratzea.
 - Familien eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntzari dagokionez:
 - ✓ Hainbat aukera sortzen dira familiak informatuta egoteko, komunitatean dauden baliabideak eta ikastetxean egiten diren jarduerak ezagutzeko, eta beren seme-alaben ikaskuntzan laguntzeko eta haien aurrerapenei dagokienez adi egoteko.
 - ✓ Koordinazioa dago komunitateko kanpo-agente, erakunde eta enprekin, ikasleei ikaskuntza-esperientzia gehiago eskaintzeko.

Aurreko neurri guztiak eta gure testuingurua kontuan izanik, **honako hobetzeko arlo hauei ekin beharko litzaieke:**

- ✓ Etorkizuneko irakasleei eskatu beharreko konpetentzien zehaztapena eta definizioa hobetzea, irakasleen konpetentzia-profilaren arabera.



- ✓ Berdinek eta ikastetxeak bultzatutako ikaskuntza-aukeren eskaintza handitzea, eta norberaren eta besteen praktikak hobetzeko ekimenak bultzatzea ikasleen irteera-profila lortzeko.
- ✓ Hezkuntza-praktika eta -esperientzia arrakastatsuen zabalkundea, hezkuntza-komunitate osoak ikasi ahal izateko.
- ✓ Ikasleen irteera-profila eta irakasleen kompetentzia-profila kontuan izatea irakasleentzako eta zuzendaritza-taldeentzako prestakuntza-jardueren antolaketa eta diseinuan, ikaskuntzek ikasgeletan eta ikastetxeetan inpaktua izan dezaten lortzeko.
- ✓ Zuzendaritza-funtzioen irudia hobetzea, zuzendaritza-taldeetan lidergoa bultzatzea, egonkortasuna sustatzea eta ikastetxeen eta pertsona-taldeen kudeaketa eta antolaketari buruzko alderdietan prestakuntza areagotzea.
- ✓ Familiei eta hezkuntza-komunitatearen gainerakoari parte hartzeko, lankidetzarako eta prestakuntzarako aukera gehiago eskaintzea.

2.1.2.- HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

<p>L1.1.- Irteera-profilean definitutako konpetentziak ikasleek lor ditzaten, irakasleen konpetentzia-profila lortzera bideratzea hasierako prestakuntza.</p>	
<p>LORPEN-ADIERAZLEAK</p>	
<p>2015-2016</p>	<p>2019-2020</p>
<p>Lantalde iraunkor bat eratu dute Hezkuntza Sailburuordetzak eta Unibertsitate eta Zientzia Politikarako Sailburuordetzak, irakasleen hasierako prestakuntzari eta praktikei lotutako lorpen-adierazleak aztertu eta adosteko, ikasleen irteera-profilearen arabera.</p>	<p>L1.1.1.- Goi-mailako prestakuntzako ikastetxe guztien ekintza-planek (Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleenak eta abar), Dekretuetan ezarritako irakasleen konpetentzia-profilari lotutako konpetentziak gaineratu dituzte irteera-profilean.</p> <p>L1.1.2.- Goi-mailako prestakuntzako ikastetxeetako (irakasleenak eta abar) irakasleak ezarrita dagoen konpetentzia-profilearen lorpenean inplikatzeko baldintzak hobetu dira: prestatzaileen prestakuntza, ebaluazio- eta promozio-sistemak, eta abar.</p> <p>L1.1.3.- Ondo egituratutako praktika-sistema bat antolatu da, hala hasierako prestakuntzaren aldian nola irakasle-lanbidea lortzeko aldian.</p>

L1.2.- Oinarrizko Hezkuntzako Dekretuan ezarritako irteera-profila ikasleek lor dezaten, irakasleen kompetentzia-profila eguneratzera eta egiaztatzerara bideratzea etengabeko prestakuntza, Prest_Gara Planaren bitartez.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Administrazioak eta ikastetxeek ikasleen irteera-profileko kompetentzien azterketa bat egin dute.</p> <p>Prestakuntza-jarduera bakoitzean sustatu nahi diren irakasleen kompetentzia-profileko kompetentzien azterketa bat egin dute.</p> <p>Prestakuntza-jarduerak ikuspegi bikoitza oinarritzat hartuz taldekatu dituzte: prestakuntzaren bitartez eraginpean hartu nahi dituen irakasleen kompetentzien arabera, eta prestakuntza-jardueraren edukiak oinarritzat hartzen dituen ikasleen irteera-profilearen kompetentzien arabera.</p>	<p>L1.2.1.- Irakasleek ikasleei eskatzen zaien kompetentzia-profila ezagutzen dute eta lanbide-profila praktikan jarri dute.</p> <p>L1.2.2.- Prestakuntza-ekintzak irakasleen kompetentzia-profileara eta ikasleen irteera-profileara egokitu dira.</p> <p>L1.2.3.- Prestakuntza-ekintzak hezkuntza-komunitatearen irakatsi eta ikasteko helburuen ikuspegi bateratua hartzen dute oinarritzat.</p> <p>L1.2.4.- Irakasleek eta ikastetxeek beren prestakuntza-ibilbidea aukeratu dute barne- eta kanpo-ebaluazioetan detektatu diren premiekin konprometituz.</p> <p>L1.2.5.- Irakasleen prestakuntza ikastetxe-proiektuen bitartez egin da.</p>
<p>Ikastetxearen Urteko Planean irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza-plana bildu da, Hobetzeko Planean zehaztutako helburuak ere barnean hartuz.</p>	<p>L1.2.6.- Ikastetxeek irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza-plana Ikastetxearen Urteko Planean biltzea sistematizatu dute, Hobetzeko Planean zehaztutako helburuak ere barnean hartuz.</p>



L1.3.- Hasierako eta etengabeko prestakuntza eskaintzea ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ikastetxeetako etengabeko hobekuntza denbora luzez eta modu egokian gidatu dezaten.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Zuzendaritza-taldeen funtzioa egikaritzeko behar den kompetentzia-profila landu da: zuzendaritza, ikasketaburutza, idazkaritza.</p> <p>Hasierako nahiz etengabeko prestakuntza zuzendaritza-taldeen funtzioak egikaritzeko behar diren kompetentzien garapenera bideratuta planifikatu dira: zuzendaritza, ikasketaburutza, idazkaritza.</p>	<p>L1.3.1.- Zuzendaritza, ikasketaburutza eta idazkaritzako funtzioetarako izangai guztiek beren kompetentzia-profilari dagokion hasierako prestakuntza eskuratu dute eta dagokion egiaztagiria jaso dute.</p> <p>L1.3.2.- Zuzendaritza-taldeko kideek (zuzendaritza, ikasketaburutza, idazkaritza) etengabeko prestakuntzarako sarbidea dute era beren funtzioei dagokien kompetentzia-profila ezagutzeko eta praktikan jartzeko eguneratzen dira.</p>



L1.4.- Esperientzia eta jardunbide egokiak abiapuntu dituen eta ikasgelan ikerketa eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak helburu dituen berdinen arteko prestakuntza indartzea.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Bikaintasunera bideratutako hezkuntza-berrikuntzako eta “Partekatuz ikasi” modalitaterako deialdietan ikastetxeen parte-hartzea % 10 handitu da.</p> <p>Ikastaroetako jardunbide egokien inguruko zabalkunde-jardunaldiak egin dira.</p>	<p>L1.4.1.- Ikastetxeen parte-hartzea % 50 handitu da.</p> <p>L1.4.2.- Laguntza-zerbitzu guztiek (Berritzeguneak, Irale, Barnetegiak, ...) arrakasta-esperientziei buruzko jakintzaren zabalkuntza, trukaketa eta partekatzean parte hartu dute.</p>
<p>Jardunbide egokiak eta berrikuntza-proiektu integralak egiten dituzten ikastetxeen jarraipena egin da, praktiketako ikasleei egindako harrerari dagokionez.</p> <p>Ikastetxeetan irakasle-zereginerako prestatzen ari diren ikasleek egiten dituzten praktiken hainbat alderdi erregulatzeko Agindu bat argitaratu da eta jardunbide egokiak eta berrikuntza-proiektu integralak egiten dituzten ikastetxeen jarraipena egin da, praktiketako ikasleei egindako harrerari dagokionez.</p>	<p>L1.4.3.- Etorkizuneko irakasleek (hasierako prestakuntzako, Graduako edo Masterreko ikasleak), ikastetxeetan, eta bereziki bikaintasun-ikastetxeetan edo jardunbide egokien erreferente diren ikastetxeetan praktikak egiteko aukera izan dute.</p> <p>L1.4.4.- Jardunbide egokien eta berrikuntza-proiektu integralen banku bat dago praktiketako ikasleentzat.</p> <p>L1.4.5.- Aitortu egin zaie ‘balio erantsiko’ ikastetxeei euren lana, bokazioa eta dedikazioa, Horretarako sariak emateko deialdia egin da kanpoko epaimahaiak ebaluatuta.</p>



L1.5.- Familiek eta irakasle ez diren langileek hausnarketa-prozesuetan eta prestakuntza-jardueretan parte har dezaten bultzatzea, ikasleen irteera-profilaren lorpenean irakasleekin lankidetzan jarduteko eta ikastetxearen hobekuntzarako ekarpenak egiteko.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Prestakuntzari lotutako deialdiak idatzi dira familiek parte hartu ahal izateko prestakuntza-jarduerak barnean har ditzaten (2016-2017 lorpen-adierazletik dator).</p>	<p>L1.5.1.- Familiek eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideek etengabeko hobekuntzara bideratutako prozesuetan eta erabaki-hartzean parte har dezaten bultzatu da, besteak beste Hezkuntza Proiektuaren onespenean.</p> <p>L1.5.2.- Familiek zeharkako proiektuak (bakea eta elkarbizitza, baterako hezkuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa, aniztasunari eman beharreko erantzuna eta abar) ezagutzen dituzte eta proiektu horietan parte hartzeko bideak eskura izan dituzte.</p>
<p>Hezkuntza-komunitateari irekitako jardunaldiak egin dira baterako hezkuntzaren eta aniztasunari eman beharreko erantzunaren inguruan.</p>	<p>L1.5.3.- Ikastetxeak familientzat eta hezkuntza-komunitatearentzat topagune eta prestakuntzagune izatea laguntzen duten ekimenak bultzatu dira.</p>
<p>Irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntzan lan egiten duten laguntza-zerbitzuek garatzen dituzten zereginak identifikatu eta aztertu dira.</p>	<p>L1.5.4.- Familiek, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuek eta gainerako hezkuntza-agenteek eskola-komunitatean elkarrekin lan egin dute hobetzeko planean eta ikastetxearen urteko planean bildutako hezkuntza-prozesu eta -jardueren % 100ean.</p>

2.2.- HEZKUNTZA INKLUSIBOA ETA ANIZTASUNARI ERANTZUNA (L2)

2.2.1.- SARRERA

Gizarteak, eta derrigorrezko eskolak haren zati den heinean, aniztasunari erantzun behar dion moduaren aipamena egiten duen kontzeptua da inklusioa; praktikan, orain arte ikaslearengan bakarrik fokalizatuta zegoen hezkuntza-erantzunaren ardatza eskola-testuinguru arruntera lekualdatzea dakar. Eskola inklusiboak bermatzen du haur eta gazte guztiek hezkuntzarako sarbidea izango dutela, baina ez edozein hezkuntzara, baizik eta kalitatezko hezkuntza batera, aukera berberak emango dituen, justua eta ekitatezkoa denontzat.

Hezkuntza inklusiboak bere ikasgeletan aniztasunaren adierazpen guztiak biltzen ditu, baina modu bereizian. Gizartean dagoen aniztasuna ikastetxeetan ere ikusten da, baita hari buruz egiten den balioespena ere, hainbat adierazpenen bitartez: kulturen, gaitasunen, sexu-orientazioaren, generoaren eta baliabide sozioekonomikoen aniztasuna.

Mehatxatuen dauden kolektiboak, hezkuntza inklusiboan arreta gehiago behar dutenak, aniztasun horietako asko dituztenak dira, desparekotasunak direnean edo diskriminazio-moduan atzematen direnean.

Diagnostikoa

Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-premia bereziei buruz indarrean dagoen araudiaz gain (1998), une honetan “Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa” daukagu, 2016. urtea amaitu baino lehen ebaluatu behar diren zenbait helburu eta ekintza biltzen dituen.

Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoaren esparruan, 2015erako edo 2016rako bitarteko ikuspegia duten beste plan batzuk daude. Diagnostiko hori egiteko abiapuntua, nahitaez, plan bakoitzean burututako ekintzen ebaluazio bat izango da, baita ezarritako helburuen lortze-maila ere.

- Ikasle etorkinei hezkuntza-erantzuna emateko plana eskola inklusibo eta kulturartekoaren barruan. 2012-2015.
- Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plan bat. 2012-2015.
- Hezkuntza-jarduneko plana. Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak. 2012-2016.
- Baterako hezkuntzarako eta hezkuntza-sisteman genero-indarkeria prebenitzeko plan zuzentzailea. 2013-2016



- Plan horiei lotuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila "Aniztasunari erantzuteari lotutako zenbait programa" ari da garatzen, dagozkion argibide, deialdi eta abarrekin, ebaluatu beharrekoak guztiak ere:
- Kulturartekotasuna sustatzeko programak
- BIDELAGUNA (lehen PROA). hezkuntza Berriaz Sendotzeko Programa
- Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak Curriculum Aniztasunaren bidez
- Hamaika esku programa
- Haur garapenaren jarraipen protokoloa: Arreta Goiztiarraren Hezkuntza Ingurunea.

Badira beste zenbait programa ere, hala nola Eskolaratze Osagarriko Programak edo Aldundiekin eta Udalekin adostutako beste batzuk, esaterako:

- Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa. Deseskolaratzea eta eskola-absentismoa desagerraraztea Arabako lurraldean. 2012-2015.
- Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa. Deseskolaratzea eta eskola-absentismoa desagerraraztea Bizkaiko lurraldean. 2015-2019. Ikus jarraipen-batzordearen urteko txostena "Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: deseskolaratzea eta eskola-absentismoa desagerraraztea Bizkaiko Lurraldean".

Aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoaren balorazio osoaren faltan (2012-2016), nabarmentzekoa da 2013. urterako ere EAEko hezkuntza-sistemak lortuak zituela EBk 2020. urterako ezarritako hezkuntza-helburuak: eskola-uzte goiztiarraren tasa txikia eta goi-irakaskuntza amaitzen duten ikasleen ehuneko handia.

Eskola-uzteari dagokionez, EIN Estatistika Institutu Nazionalaren datuen arabera Euskadi % 8ko tasara iritsi da eskola-uzte goiztiarrari dagokionez. EBk % 13,5eko tasa zuen 2011n. Tarte handiagoarekin gainditu du Euskal Autonomia Erkidegoak goi-mailako irakaskuntza amaitu duen 30 eta 34 urte arteko biztanleriaren helburua. EBk % 34,6ko balioa zuen 2011n eta helburu gisa finkatu du % 40ra iristea 2020an, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, balio hori % 61,3 zen 2011n.

Garrantzitsua da titulazten ez duen eta/edo hezkuntza-sistema behar baino lehenago uzten duen pertsona mota aztertzea eta ezagutzea, egoera horiek gainditzeko lagunduko duten ebidentzia zientifikotan oinarritutako proposamenak egiteko (ikaskuntzak bizkortu, itxaropen handiak sustatu, ikasgela arruntean dauden baliabideak sartu, talde heterogeneoak, eta abar).

Jakin badakigu emaitza akademikoen desparekotasunetan gizarte-desparekotasunen ondorioak mugatzeko neurri eraginkorrenetako bat haurrak goiz hartzea eta haiei arreta goiztiarra eskaintzea da, eta Euskal hezkuntza-sistemak modu orokorrean eskolaratzen ditu, eta doan 2 urtetik aurrera.

DBHan aniztasunari erantzuteko neurriei dagokienez, ISEI-IVEI erakundeak aurkeztutako datuen arabera (2007, 2008 eta 2009), erkidego inklusiboenetako bat dugu, gure erkidegoaren batezbestekoak Estatukoarekin eta Europar Batasunakoarekin alderatuz gero.

Hobetzeko alorrak

Azterlanak, ikerketak eta ebidentzia zientifikoak biltzen dituzten txostenak ezinbesteko erreferentziak dira hezkuntza-sistemek aurrera egiten jarrai dezaten kalitatean eta ekitatean. Dena den, ahalegintzen jarraitu behar dugu ondorio horiek esparru horretatik irten eta benetan iritsi beharreko lekura iritsi daitezen, hau da, ikasgeletara eta ikastetxeetara.

Hainbat ikerketa eta azterlanek (McKinsey Txostena, ISEI-IVEIren Ikerketak, INCLUD-ED Europako Batzordearen VI. Esparru programaren Proiektu Integratuaren Ikerketak, Andreas Schleicher txostena, eta abar), argi eta garbi adierazten dituzte jarraitu beharreko gakoak eskola inklusiboak eskola-arrakastara eraman dezan:

- ✓ Espektatiba handiak. Eskola-arrakasta espero da ikasle guztientzat, espektatiba handi eta argiekin, proposamen aberastu eta kalitatezkoekin, ikasle guztien ikaskuntza bizkortzen dutenak. Berdinen arteko lana sustatzen da, askotariko interakzioak, IKTen erabilera bultzatzen da, ikaskuntzaren autonomiaren alde egiten da.
- ✓ Prebentzioa eta esku-hartze goiztiarra ikaskuntza-zailtasunak direla-eta: koordinazio-neurriak daude irakasleen artean ikasleen gaitasunak goiz detektatzeko eta esku-hartzea egokitzeke, pertsonak bere potentzial handiena lor dezan.
- ✓ Interakzioa taldekatze heterogeneoetan. Ikasgelak, patioak edo jantokiak heterogeneotasuna ziurtatzen den eta heterogeneotasun hori aberastasun bihurtzeko lan egiten den gunek dira.
- ✓ Eskola-komunitatearen parte-hartze handiagoa (familiak...): koordinazioa eta lankidetzaren sustatzen da ikastetxearen barruan zein kanpoan; koordinazioa kanpo-agenteeekin (erakundeak, enpresak, osasun-zerbitzuak eta beste batzuk) ikasleei ikaskuntza-esperientzia gehiago eskaintzeko, koordinazioa familiekin, informazioa emanez eta haiei lagunduz ezarritako helburuak lortzeko.
- ✓ Ikaskuntza-prozesua aberastea eta bizkortzea: bikaintasuna indartzen da, hau da, beharrezko hezkuntza-balioak ematen dira ikasleei beren gaitasunek ahalbidetzen dieten bezain urruti, bizkor eta zabaltasun eta sakontasun handienarekin iritsi daitezen.
- ✓ Aniztasuna eta irakaskuntzaren pertsonalizazioa. Ikaskuntzaren indibidualizazioa eta pertsonalizazioa, eta hori egitea ahalbidetzen duten neurrien ezarpena dira orain ere azpimarratu beharreko hobetzeko alderdiak ikasleen aniztasunari erantzuteko. Egiten ikastearen, talde-lanaren, sorkuntzaren eta arazoak konpontzeko trebetasunen garrantzia azpimarratzen da.



Aurreko neurri guztiak eta gure testuingurua kontuan izanik, **honako hobetzeko arlo hauei ekin beharko litzaieke:**

- ✓ Aniztasuna balio bat bezala kontuan hartu eta tratatzea.
- ✓ Diagnostiko Ebaluazioan ebaluatutako konpetentzien emaitzak hobetzea, gizarte-testuinguru behartsuei lotuta dauden ikasleei dagokienez.
- ✓ Bikaintasun-mailak handitzea.
- ✓ Errepikapenen indizea minimizatzea.
- ✓ Hezkuntza-praktika inklusiboak sustatzea.
- ✓ Irakasle guztiak hezkuntza-laguntzan parte har dezaten bultzatzea.
- ✓ Tutoretza bultzatzea eta tutoretza indibidualizatua indartzea.
- ✓ Balio erantsi handiagoa duten metodologiak indartzea.

Bestalde, ezinbestekoa da sarbidea eta benetako parte-hartzea hobetzea, zenbait neurri indartuta honako hauek lortzeko:

- ✓ Absentismoa desagerraraztea.
- ✓ Lehen etapatik bigarrenerako iragaiteak uzten ditu ikasle kalteberenak hezkuntza-sistema arruntenetik baztertua izateko arriskuan.
- ✓ Detekzio eta erantzun goiztiarra Hezkuntza Laguntzako Premia Espezifikoiei dagokienez.

2.2.2.- HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L2.1.- Jatorriari, etniari, generoari, kulturari, sexu-orientabideari eta genero-identitateari lotutako arrazoiengatiko eskolaratze ez-diskriminatzailea bermatzea ikasleak onartzean, eta harrera, iragaita eta aniztasun funtzionalari edo beste edozein arrazoiengatik eman beharreko erantzuna optimizatzea, gizarte-integrazio eta -kohesio handiagoa lortzeko.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Onarpen-prozesuaren eta eskolaratze-batzordeen irizpideak berrikusi dira, eta haien betetze-maila ebaluatu da, ikastetxeen arabera.</p> <p>Absentismoaren, eskola-uzte goiztiarraren, eskola-porrotaren eta errepikapenaren indizeak berrikusi dira, eta hobekuntza proposamenak egin dira.</p> <p>Berandu sartzen diren ikasleen eskolatzea sare desberdinen artean ekitatez egin da.</p> <p>Berandu sartzen diren ikasleen jarraipena planifikatu da, bigarren eskolatze-urtean.</p> <p>Tokiko eta tokiz gaindiko beste erakunde batzuekin harremanak sakondu eta zabaldu dira, absentismoa prebenitzeko eta gizarte-kohesio handiagoa bermatzeko.</p>	<p>L2.1.1.- Eskolaratze- eta egokitasun-indizeak hobetu dira (errepikapenik eza).</p> <p>L2.1.2.- Ikasleak eraginpean hartzen dituzten araudi guztiek inklusibitate-printzipioak izan dituzte kontuan.</p> <p>L2.1.3.- Ikastetxearen aniztasun-indizeen oreka hobetu da (ikasleen jatorriaren, etniaren, sexuaren, hezkuntza-premia berezien eta abarren arabera), haren eragin-eremukoen arabera.</p>
<p>Ebidentzia zientifikoko irizpideak betetzen dituzten jardun egoki inklusiboen inbentario bat landu da.</p>	<p>L2.1.4.- Gehitu egin da jardun egoki inklusiboen kopurua ikastetxeetan eta Sare_Hezkuntza plataformaren erabilera.</p>
<p>Patioen, jantokien eta eskolako beste gune eta denboren ("gune birtualak" barne) klabe inklusibo eta seguruetak erabilera-praktikei buruzko analisiak egin dira, eta irizpide ez-baztertzailak proposatu dira.</p>	<p>L2.1.5.- Hezkuntza-irizpide ez baztertzailak hartu dira kontuan taldeak eta jarduera guztiak antolatzeko garaian ikastetxeko eskolagune eta eskola-denboretan (ikasgelak, pasilloak, patioak, jantokiak, kiroldegiak, ...).</p>
<p>Ikasle etorkinen hezkuntza-arretarako, ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko, gaitasun handiko ikasleekiko hezkuntza-jardunerako, baterako hezkuntzako eta genero-indarkeria prebenitzeko planak ebaluatu dira.</p> <p>Datozen urteetako plan berriak egiteko proposamenak egin dira.</p>	<p>L2.1.6.- Planak martxan jarri dira eta ebaluatu egin dira, lorpen-adierazleak identifikatuz.</p>

L2.2.- Absentismoa, eskola-uzte goiztiarra, eskola-porrota, aniztasunari eman beharreko erantzuna edo bazterkeriako edozein modu prebenitza eta haren gain jardutea, baliabideak eraginkortasunez erabiliz ikasle guztien mesederako.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Azterketa bat egin da estrategia inklusiboak ezartzeko lagungarriak izan daitezkeen antolamendu-alderdiak aldatzeko irisgarritasun kognitiboari dagokionez.</p> <p>Azterketa bat egin da ikastetxeen errealitatea balioesteko diskriminaziora eraman dezaketen egoerei dagokienez, eta bizikidetzeta-plana duten ikastetxe guztiei jardun-protokoloa eman zaie.</p> <p>Oso profil sozioekonomiko baxua duten eta gizarte- eta hezkuntza-bazterkeriako arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeen baliabide-premiak balioesteko azterketa bat egin da, ikasleen irteera-profilaren konpetentziak lortzeko xedez.</p>	<p>L2.2.1.- Irisgarritasun kognitiboko gidak egin dira EAEko ikastetxe guztietarako, ikasleek ikaskuntzara behar bezala sartzeko aukera izan dezaten, ikasle horien aniztasun-adierazpenak edozein izanda ere.</p> <p>L2.2.2.- Orientabideen eta protokoloaren betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egin da bizikidetzeta-plana daukaten zentro guztietan.</p> <p>L2.2.3.- Oso profil sozioekonomiko baxua duten eta gizarte- eta hezkuntza-bazterkeriako arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeei, jatorrizko gabeziak konpentsatzeko eta curriculumean ezarritako konpetentzien garapen-mailak lortzeko baliabideak eman zaizkie.</p>
<p>Haur Garapenaren Jarraipen Protokoloaren barnean <i>Garapenaren Errutinazko Zaintza</i> izena duen lehen fasearen prestakuntza-prozesuetako parte-hartze indizea 2 eta 3 urtekoetan % 95 izan da.</p>	<p>L2.2.4.- Gutxienez ikastetxeen % 60an hobetu egin dira prebentzioarekin, detekzioarekin eta esku-hartzearekin lotutako hezkuntza-praktikak haurren etapan.</p>
<p>Garapenarekin lotutako susmoak edo arazoak dituzten haurren etapako (2-3 urte) ikasleen detekzioa hobetu da kasuen % 95ean.</p>	<p>L2.2.5.- Garapenarekin lotutako susmoak edo arazoak dituzten ikasleen detekzioa hobetu da kasuen % 100ean</p>
<p>Lantalde bat jarri da martxan garapenaren zaintza- eta jarraipen-prozesuak egiteko arreta goiztiarreko ereduari jarraiki, baina Lehen Hezkuntza ikasleen ezaugarrietara eta Lehen Etapako ezaugarrietara egokituta</p>	<p>L2.2.6.- Ikaskuntza Zailtasunak edo garapenaren zailtasunak, arrazoi batengatik edo bestearengatik eragindakoak, dituzten ikasleen detekzioarako prestakuntza eman zaie irakasleei, Lehen Hezkuntzan kasuen % 100ean.</p>
<p>Ikastetxeetan Aniztasunari erantzuteko Gida bat dago.</p>	<p>L2.2.7.- Aniztasunari erantzuteko neurriak praktikan jarri dituzten ikastetxe guztien jarraipena egin du Administrazioak.</p>



L2.3.- Komunitate gero eta inklusiboagoen eraikuntzan aurrera egitea, familia, irakasle eta ikasleen zein hezkuntza-arloko, gizarte-arloko eta osasunaren esparruko agenteen inklusio eta parte-hartze prozesuak indartuz, baita ikastetxe eta sareen arteko komunikazioa eta trukea bultzatuz ere, ikasleek beren konpetentziak al bait gehien garatzearen bidean laguntzeko.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
Ikastetxeen % 10ek prestakuntza-jarduerak hasi dituzte senitartekoekin eta senitartekoentzat.	L2.3.1.- Ikastetxeen % 35ean batzorde mistoetan, prestakuntzan eta arrakastako hezkuntza-jardueretan parte hartu duten senitartekoak daude.
EAEn Hezkuntzaren alorrean eskumena duen Sailarekin batera lan egiten duten taldeen katalogo bat egin da.	L2.3.2.- Taldeen arteko edo barruko koordinazioa zirkunstantzia desberdinak direla-eta beharrezkoa duten ikasle guztientzako arreta hobetzeko mesedegarria izan da.
Sare bakoitzak bere sare-proiektua eta ikastetxe-eredua berrikusi du ildo estrategiko hau definitzen duten printzipioetatik abiatuta.	L2.3.3.- Prestakuntza-jardunetan parte hartu duten ikastetxeen % 60k ikasle guztientzako hezkuntza-praktika arrakastatsuak gaineratu dituzte beren urteko planetan.
Hezkuntza bereziko langilearen plazak sortzeko prozesua hasi da (Hezkuntza Bereziko Lanpostuen Zerrendarako (LZ) Dekretu proiektua).	L2.3.4.- Hezkuntza Bereziko Dekretua onartu da, hezkuntza bereziko langilearen egoera arautzen duena.

2.3.- ELEBITASUNA HEZKUNTZA ELEANIZTUNAREN BAITAN (L3)

2.3.1.- SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoan, herritarren parte handi baten komunikaziorako kompetentziaren erakusle edo adierazgarri zehatza da bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, egoki erabiltzea komunikazio-egoera ugaritan, hainbat testuingurutan, eta gero eta formaltasun- eta konplexutasun-maila handiagoarekin. Elebitasuna arlo desberdinetan garatu izan delako gertatu da hori, eta besteak beste hezkuntza arloan garatu delako.

Kontuan izan behar da XXI. mendeko euskal gizarteak eleaniztuna izan nahi duela eta, beraz, eskolak nahitaez herritar eleaniztunak lortzen lagundu beharra duela. Horregatik, mundu gero eta elkarlotuago honetan –non hainbesteko garrantzia duten jakintzaren gizarteak, informazio- eta komunikazio-teknologiek eta pertsonen mugikortasunak–, hizkuntza ofizialez gain jakin behar dira, ezinbestean, hizkuntza global esaten zaien etako bat edo batzuk, eta era horretan bultzatu pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta kulturek elkar ulertzeko.

Gauzak horrela, alde batetik, Hezkuntza eta prestakuntza arloetarako europar lankidetzarako ET 2020 esparru estrategikoaren helburu da Batasuneko herritar guztiak ama-hizkuntzaz gain beste bi hizkuntzatan komunikatzeko gai izatea. Hizkuntza Gaitasunari buruzko Europar Azterlanaren emaitzetan oinarrituta, Enplegugarritasun, Mugikortasun eta Hazkunderako hizkuntza-gaitasuna 2012ko lan-agiriak –Europar Batzordearen “Hezkuntza berraztertzea” adierazpenean jasoak–, erreferentziazko helburu bikoitza jarri du 2020rako: helburu kualitatiboa, 15 urteko ikasleen %50ak gutxienez erabiltzaile-independientearen maila lor dezan (Europako Erreferentziazko Marko Bateratuko –EEMB– B1 maila edo handiagoa) atzerriko lehenengo hizkuntzan; eta helburu kuantitatiboa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako ikasleen %75ak gutxienez atzerriko bi hizkuntza ikas ditzan.

Beste alde batetik, Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Kartak (1992) erakunde izenpetzeak behartu egiten ditu erregio edo gutxiengoaren europar hizkuntzak babestera. Hizkuntza horietako bat euskara da. Kontuan hartuz ingurunearen baldintzek eta gizarte-harremanek gaztelaniaren erabileraren alde egiten dutela, eta –ebaluazioek erakutsi dutenez– irakatsi eta ikasteko prozesuan euskara erabiltzea funtsezkoa dela ahoz eta idatziz behar bezala komunikatzeko gai izateko, hezkuntza eleaniztunak euskara izan beharko du ardatz, era horretan gainditu ahal izateko bi hizkuntza ofizialen arteko desoreka –gaur egun gaztelaniaren aldekoa–, eta bi hizkuntzen berdintasun soziala eta ikasleen aukera-berdintasuna sustatzeko. Horregatik, euskara ohituraz eta modu normalizatuan erabiltzen dela bermatuko da, barruko nahiz kanpoko jardueretan eta, oro har, eskolako ekintzetan.

Diagnostikoa

Lehentasun lerro honen bilakabidea eta egungo egoera, legeriaren babespean familiek eginiko hautuaren eta Hezkuntza Administrazioak eginiko eskaintzaren eta jarritako baliabideen emaitza da. Horrela, hezkuntza elebiduna garatuz joan da. Era berean, hezkuntza elebiduna garatuz joan da euskal hezkuntza sisteman azkeneko hiru hamarkadetan. Era berean, ingelesaren irakaskuntza ere garatu da, eta pixkanaka ingelesezko irakaskuntza ere.

Hezkuntza elebiduna garatzeko bidean, 1997-98 eta 2014-2015 ikasturteen artean familiek hautatutako hizkuntza-ereduei buruzko datuak jaso ditugu ondoren:

- ✓ Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, familien hautua euskara nagusi den ereduen aldekoa izan da oro har. Horren ondorioz, D ereduak bikoiztu egin da, B ereduak %10 egin du gora eta A ereduak bi heren murriztu da.
- ✓ Etorkizuneko joera aurreikusteko, 2014-15 ikasturtean Haur Hezkuntzan izan ziren matrikulazioetara jo dugu eta D, B, A ereduetan ikasleen %77,2a, %19,0a eta %3,2a matrikulatu ziren, hurrenez hurren²⁴.
- ✓ A ereduan, berriz, 2014-15 ikasturtera arte curriculum-eko ikasgaiak edo arloak irakasteko orduan euskara apenas erabili izan da.
- ✓ Batxilergora etorri gero, 2003-04 ikasturtetik hona D ereduak A ereduak baino 4000 ikasle gehiago baditu ere, etapa honetan A ereduak izan duen presentzia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan duena baino hiru aldiz handiagoa izan da. Familien eta ikasleen hautua, egin izan den eskaintzaren baitan gertatu baita: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan B ereduan aritu izan diren ikasle gehienek, Batxilergo D eredutik egin ala A eredutik egin, aukeratu behar izan dutenean, gehienek A eredu hartu izan dute, B ereduaren eskaintzarik izan ez dutelako.

Ikasleriak egiten duen euskararen erabilerari dagokionez, ARRUE ikerketaren emaitzen arabera²⁵ laburbil dezakegu eguneroko bizitzan eskola dela euskara gehien erabiltzen duten gunea. Eskolako erabilerak gaisu egiten du, erraz gaisitu ere, eskolaz kanpoko ekintzetako erabilera-maila, auzo edo herriko lagunekin kalean egiten duten erabilera, familia girokoa eta bai komunikabideen kontsumoan egiten dutena ere. Eskolako eremuan erabilera apalena jolaslekukoa da. 2011 eta 2013 bitartean erabilera %2a igo da, bai LH4 mailako eta bai DBH2 mailako ikasleen artean.

²⁴ Euskaraz ikasten ez dutenak, %0,5 ziren.

²⁵ ARRUE ikasleen eskola giroko hizkuntzen erabilerari buruzko ikerketa. (2012, ISEI-IVEI eta Soziolinguistikako Klusterra).

Arestian aipatutako lorpen horiek ulertu ahal izateko, ezinbestean hartu behar da Hezkuntza eskumena duen Sailak hezkuntza-administrazioa eta eskola-giroa euskalduntzeko antolatutako NOLEGA atalak, eta bertatik abian jarritako hiru programak: IRALE programa, irakasle elebidunak eskuratzeko; ULIBARRI programa, eskolaren jardura osoan, gela barruko esparru formaletan zein eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen ingurune-erabilera bermatzeko; eta EIMA programa, euskarazko ikasmaterialgintza bultzatu eta babesteko.

Urtealdi ia berean -1996-97 ikasturtetik hona-, hezkuntzan eleaniztasuna sustatuz joan da²⁶. Ekimen eta programa aipagarrienak laburbildu dira ondoko lerroen bidez:

- ✓ Euskadin Hezkuntza Sailak bideratutako lehenengo esperientzia eleaniztuna 20 ikastetxetan hasi zen 1996an, hiru modalitate desberdinetan: bata, Ingeles hizkuntzaren sarrera goiztiarra 4 urtetik aurrera, 13 ikastetxetan; bestea, Ingeles ikasgaiaren ordutegia handitzea, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arte, astean 2 ordu izatetik 5 ordura, 3 ikastetxetan, curriculumeko arloetako edukiak eta arlo osoak emateko; eta azkena, Ingeles ikasgaiaren ordutegiaren handitzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 4 ikastetxetan, curriculumeko arloetako edukiak ingelesez emateko.
- ✓ 2000-2003 urtealdian, berriz, INEBI edo Lehen Hezkuntzan Ingelesa Edukien Bidez programa eta BHINEBI edo Bigarren Hezkuntzan Ingelesa Edukien Bidez programa ezarri ziren, hainbat ikastetxetan.
- ✓ 2003tik aurrera, Esperientzia Eleaniztuna jarri zen Batxilergoa zuten Bigarren Hezkuntzako 18 ikastetxetan, atzerriko hizkuntzan curriculumaren arloak emateko. ISEI-IVEIk ebaluatu zuen 2007an, besteak beste, Cambridge ESOL Fundazioaren laguntzarekin²⁷. Ebaluazio hori egin eta gero, 2009an, Bigarren Hezkuntzako 28 ikastetxe ari ziren curriculumaren arloak ingelesez ematen, eta 10 ikastetxe, frantsesez.

2010-11 ikasturtetik 2013-14ra bitartean, Hezkuntza Marko Hirueledunaren (HMH)²⁸ esperientziaz jarri zen abian hiru urtez, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan, txanda bitan: HMH I txanda, 2010-11tik 2012-13 ikasturtera burutu zen, 40 ikastetxetan; HMH II txanda, 2011-12tik 2013-14 ikasturtera burutu zen, 77 ikastetxean.



HMH esperientziazkoaren ebaluazioa burutu ondoren, hauexek dira eskuratu diren ondorioak:

²⁶ Ordurako, 1991. urtez geroztik, elebitasunetik eleaniztasunera bideratzeko asmoz, hirugarren hizkuntzaren ezarpen goiztiarra, lau urtetik aurrera, proposatzen zuen "Eleanitz-English" egitasmoa indarrean zegoen ikastolen esparruan.

²⁷ *Ikasle hirueledunak Bigarren Hezkuntzan: egoera berri bat* (ISEI-IVEI, 2007).

²⁸ *Txosten exekutiboa. HMHren esperientziazkoaren ebaluazioa* (ISEI-IVEI, 2014).

- 1.- H1 eta H2 hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz, antzeko errendimendua gertatzen da HMH talde esperimentaletan eta kontrol taldeetan.
- 2.- Hizkuntzakoak ez diren konpetentzietako errendimendua, kasu honetan *Matematikarako konpetentzia eta Zientzia kulturarako konpetentzia*, emaitza antzekoa da HMHko talde esperimentaletan eta kontrol taldeetan.
- 3.- H3 hizkuntzako errendimendua, kasu honetan ingelesekoa, HMH talde esperimentaletan kontrol taldeetan baino nabarmen handiagoa da, baina era berean ingeles ordutegia handitu duten eta HMHn parte hartu ez duten kontrol-taldeena (“Kontrol taldea+ingelese”) baino txikiagoa da. Ondoko irudien bidez erakusten denez, talde honek HMH talde esperimentaletako ikasleen emaitzak baino hobeak eskuratu dituzte:



- 4.- Esperimentazio honetako ikasleen errendimenduan testuinguruko, ikastetxe edo banakako ondorengo faktoreek eragiten dute: sexua, adin egokitasuna, familiaren jatorria, familiako ikasketa, kalifikazio akademikoa, familiako hizkuntza, ingelesezko eskolaz kanpoko jarduera, euskararen erabilera orokorra, orduen ehunekoa, hizkuntzen zaletasuna eta zailtasunaren pertzepzioa.



5.- Ikasleek HMH bukatuan etapa bukaeran hizkuntza bakoitzean lortuko luketen maila, EEMBko mailekiko, honako hau izango litzateke: Lehen Hezkuntzan, euskarari, B1 (B eta D ereduetan) eta A2 (A ereduari), gaztelan B1 eta ingelesean A2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, euskarari, B2 (D ereduari), B1 eta B2 artean (B ereduari) eta B1 (A ereduari), gaztelan B2 eta ingelesean B1.

Gauzak horrela, elebitasuna sendotzeko lanak gero eta eleaniztunagoa den testuinguruan gauzatu behar direlakoan, euskara ardatz duten hizkuntza proiektu eleaniztunak bultzatzen ari dira 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetan, orain arteko esperientzien emaitzetan eta ebaluazioetan oinarrituta eta ikastetxe bakoitzaren egoera soziolinguistikoa aintzat izanik. Horretarako deialdi bereziak jarri dira abian, ikastetxeek proiektu eleaniztunak presta ditzaten, non atzerriko hizkuntza ikasgaiak gain (gehienetan ingeles hizkuntza), curriculum-aren beste ikasgai bati dagokiona hizkuntza horretan ematen den, eta irakasleek atzerriko hizkuntzan eta hizkuntzen didaktikan duten kompetentzia egunera dezaten. 2014-15 ikasturtean 254 ikastetxeek parte hartu zuten, eta 2015-16 ikasturtean 315 ikastetxe dira guztira.

Ikasgaiak ingelesez irakastearen aldeko politiken ondorioz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ingelesez irakatsitako curriculumak, ingeles hizkuntza bera barne delarik, %12,6 zen 2012-13 ikasturtean eta %13,1 2014-15 ikasturtean.

Atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, 2015-16 ikasturte honetan EAEn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gutxienez atzerriko bi hizkuntzatan matrikulatuta dagoen ikasle kopurua %21,5 da. ET 2020ko %75eko helburutik oso urrun, beraz, hizkuntza propioa duten Catalunya, Valentzia edo Nafarroako erkidegoetan gertatzen denez, ET2020ri buruzko MCED-en txostenaren arabera %30etik behera baitaude.

Aipatu proiektuak bideragarriak izateko, berriz, gutxienez hiru hizkuntzatan kompetentzia duten eta era berean hizkuntzen didaktikan kompetentzia duten irakasleak behar dira. Lehen ildo estrategikoan bildutako datuen arabera (hezkuntza-komunitatearen prestakuntza), gutxi gorabehera irakasleen % 85ek Hezkuntzako 2. Hizkuntz Eskakizuna edo goragokoa dauka egiaztatuta (% 88,55 sare publikoan, % 78 sare itunduan); hala ere, publikoko irakasle guztien % 13,3k bakarrik eta itunduko irakasleen % 14k daukate bakarrik B2, ingelesez eskolak emateko eskatzen den maila, alegia. Gainera, publikoko irakasleen % 8,1²⁹ eta sare itunduko % 5,4³⁰ dira C1 edo C2 daukatenak.

²⁹ 2015eko azaroko datuak

³⁰ 2013ko datuak

Hobetzeko alorrak

Ugariak dira, Europan eta munduan, eskolaren bidez elebitasuna eta eleaniztasuna helmuga duten esperientziak. Esperientzia hauek, oso testuinguru desberdinetan kokatzen dira eta ezinezkoa da emaitza onak lortzeko formula bakarra eskainiko duen eredu finkatzea. Hiru hizkuntza, edo gehiago, barne hartzen dituen hezkuntzaren aniztasuna eta konplexutasuna handiak dira eta eskola eleaniztunen tipologiak era askotakoak dira.

Adituen esanetan, ondorengo aldagai nagusiak bereiz daitezke: eskola-testuinguruaren berezko hezkuntza-aldagaiak, aldagai linguistikoak, soziolinguistikoak eta indibidualak. Aldagai hauek, era sistemikoan, elkar eraginean daude, eta ez dago erantzun zehatz eta egoki bakarra, bai ordea, mundu zabalean eta gure testuinguruan egindako ibilbidean oinarrituz, erantzun zehatz horiek eman ahal izateko oinarri linguistiko, pedagogiko eta soziolinguistiko sendoak.

Elebitasunean oinarrituz, konpetentzia eleaniztuna helburu duen Hizkuntza Proiektuak, aipatutako aldagai guztiak uztartu beharko ditu, beti ere kontuan hartuz, hizkuntza horien artean, euskararekin gertatzen den bezala, hizkuntza gutxitu bat dagoen kasuan, testuinguru soziolinguistikoak pisu handiagoa hartzen duela. Halakoetan, hizkuntza gutxitua menderatzeko, hau da, euskara menderatzeko, gela barruko lanaz gainera, zaintzekoak dira eskolaren barruko komunikazio-egoerak eta eskola kokatuta dagoen gizarteko komunikazio-testuingurua.

Diagnostikoan azaldutako egoera eta gure testuingurua kontuan izanik, euskal eskolaren erronkari erantzuteko xedez, elebitasuna ziurtatu beharko dugu, eleaniztunak diren eta gutxienez ere ingelesa behar adina dakiten pertsonak lortzeko helburua gaineratuz, ingelesa baita nazioarteko komunikazio-hizkuntza. **Hobetzeko arlo hauek landu beharko lirateke:**

- ✓ Ikasleen hizkuntza-konpetentzia hobetzea euskararen eta ingelesean
- ✓ B ereduaren eskaintza Batxilergoko etapara hedatzea eta bertan D ereduaren eskaintza sustatzea.
- ✓ A ereduan euskararen irakaskuntza areagotzea.
- ✓ Ingeleseko irakaskuntza areagotzea eta zabaltzea.
- ✓ Atzerriko bigarren hizkuntzaren ikaskuntza areagotzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- ✓ Euskararen erabilera handiagoa ahalbidetu eta erraztea, barruko nahiz kanpioo jardueretan eta eskolako jardunetan oro har.
- ✓ Ingelesa eta ingelesez irakasteko konpetentzia duten irakasleen kopurua handitzea, eta euskara eta euskaraz irakasten duten irakasleen hizkuntza-eguneratzea bultzatzea.
- ✓ Irakasleek hizkuntzen didaktikan duten konpetentzia hobetzea, eta hizkuntzak irakasten dituzten irakasleek koordinatuta lan egiteko antolaketa-bideak ezartzea, hizkuntzen tratamendu integratuaren ikuspegia aplikatuz.



- ✓ Hizkuntzakoak ez diren arlo eta ikasgaietako irakasleek arlo eta gai horren erabilera espezifikoari dagokien hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia modu integral eta sistematizatuan lantzeko beharrezko prestakuntza eskaintzea.
- ✓ Euskal hizkuntza eta literaturako irakasleek, baita hizkuntzakoak ez diren arlo eta gaietako irakasleek ere, euskal kultura espezifikoari lotutako edukiak barnean hartzeko beharrezko prestakuntza eskaintzea.
- ✓ Ikastetxe guztiek Hizkuntza Proiektua landu eta dinamizatuko dutela ziurtatzea, eta proiektu horretan:
 - Hizkuntzen ikaskuntzarekin, erabilerarekin eta haieikiko jarrerarekin lotutako alderdi guztien plangintza progresiboa gauzatu behar da, testuinguru soziolinguistikoaren, irakasleen lan-egoeraren eta ikasleen premien arabera, hori guztia ikasleen irteera-profilean aurreikusitako hizkuntza-kompetentziak lortzera bideratuz.
 - Hizkuntzak eta hizkuntza horietan ikasteko ordutegia modulatu behar da, bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez ingelesean aurreikusitako hizkuntza-helburuak lortzeko behar den denboraren irizpidea kontuan izanik.
 - Ingelesez irakatsi behar duten plazen eskakizunak planifikatuko dira.

2.3.2.- HELBURUAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK

L3.1.- Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztunean ikasleek bizitzaren alor desberdinetan bi hizkuntza ofizialak era egokian eta eraginkorrean eta atzerriko hizkuntza nahikotasunez erabiltzeko gaitasuna bermatzea, bizitza osorako ikaskuntzaren markotik abiatuta ikasle ororen garapen pertsonalean, sozialean akademikoan eta profesionalean laguntzeko eta taldearen gizarte kohesioa lortzeko.

LORPEN ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
Ikastetxeek 2015eko Ebaluazio Diagnostikoan ikasleen euskara, gaztelania eta ingeles konpetenzietako emaitzak aztertu dituzte eta Hobetzeko planean zein Hizkuntza proiektuan kontuan izan dituzte. Plan horietan, irakasleen prestakuntza beharrianak jaso dira, bai hizkuntza-gaitasunari dagozkionak (euskara, ingelesa,...), bai hizkuntzen didaktikari dagozianak.	<p>L3.1.1.- Ikasleen gehiengoak curriculumean Lehen Hezkuntzaren amaierarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierarako euskara, gaztelania eta ingelesari dagokionez ezarritako irteera profila eskuratu du.</p> <p>L3.1.2.- Plan honetako 4. puntuan 2020ko Ebaluazio Diagnostikorako Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan euskara, gaztelania eta ingeles hizkuntza eta literatura konpetenzietarako aurreikusitako hobetzeko adierazleak lortu dira.</p>

L3.2.- Euskararen erabilera sozialerako aukerak eta esparruak areagotzea gelan eta gelatik kanpo, aisialdian lehentasuna jarriz eta batik bat gazteen harreman eta komunikazio esparruetan, gazteen arteko bizikidetza euskaraz sustatzeko.

LORPEN ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
2015eko ARRUE Ikerketako emaitzetan ikasleen erabilera indizeak oinarri lerrotzat hartu dira.	<p>L3.2.1.- Ikasleen eskola giroko batez besteko erabilera (ikaskideekin gelan eta lagunekin jolasean) % 60tik gorakoa izan da, ARRUE Ikerketako emaitzen arabera.</p> <p>L3.2.2.- Irakasleek ikasleekin %100 euskara erabili dute, ARRUE Ikerketako emaitzen arabera.</p>



L3.3.- Ingeles hizkuntzaz gain beste ikasgai bat ingelesez irakastea orokortzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan atzerriko bigarren hizkuntza ikasteko plangintza egitea.

LORPEN ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Euskal hezkuntza sisteman ingeles hizkuntzaz gain ingelesez irakasten diren ikasgaiak aztertu dira, eta bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntza ere, eta emaitza horiek kontuan 2015-16tik 2019-20 bitarteko urtealdirako neurrien plangintza burutu da.</p>	<p>L3.3.1.- Arlo edo ikasgai bat, ingeles hizkuntzaz gain, ingelesez irakastea orokortu egin da ikastetxe guztietan, hizkuntza proiektu eleaniztunen bidez.</p> <p>L3.3.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gutxienez atzerriko bi hizkuntza ikasten duten ikasleak %10 hazi dira.</p> <p>L3.3.3.- Handitu egin da ingelesez irakasteko eskakizuna duten plazen kopurua, ingelesez irakatsi ahal izateko B2 maila edo handiagoa duten irakasleen kopurua eta ingelesez irakasten ari diren irakasleen kopurua.</p> <p>L3.3.4.- Hizkuntzak irakasten dituzten irakasle guztiek jaso dute prestakuntza hizkuntzen trataera integratuari buruz. Gainerako irakasle guztiek hizkuntzen trataera integralari buruzko prestakuntza jaso dute.</p>

L3.4.- Eleaniztasunetik abiatuta, euskararen eta hizkuntzen bizikidetzaren aldeko jarrera, iritzi eta gizarte irudikapen positiboak lantzea ikasleen hizkuntza hautuan euskarak presentzia handiagoa lor dezan.

LORPEN ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Ikastetxeko Elkarbizitza planean hizkuntza-elkarbizitzari lotutako neurriak jaso dira eta haien zabalkundea egin da.</p> <p>Euskararekiko jarrerak (Lehen Hezkuntzan)/ iritziak (Bigarren Hezkuntzan) curriculumaren barne landu dira bizikidetzarekin lotutako diskurtsoaren barne.</p> <p>Hizkuntzarekiko atxikimendua sendotzeko eskolaren, guraso elkarte eta ordezkarien eta ikasle ohien arteko elkarlana bultzatu da.</p>	<p>L3.4.1.- Ikastetxeetan, hasierako neurketa tresnek erakutsitakotik abiatuta hizkuntza-elkarbizitza hobetu egin da, gazteen euskararekiko jarrerak (Lehen Hezkuntzan) eta iritziak (Bigarren Hezkuntzan) landu ondoren.</p> <p>L3.4.2.- Ikasleen erabilera indizeak aurrera egin ahala (ikaskideekin gelan eta lagunekin jolasean % 60), ikasleen euskararekiko jarrerak eta iritziak hobetu egin dira.</p> <p>L3.4.3.- Irakasleen euskararen aldeko ekintza positiborako eta hizkuntzen bizikidetzarako jarrerak hobetu dira.</p>



L3.5.- Ikastetxe bakoitzean, bere egoera soziolinguistikoaren arabera, hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera plangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektu eleaniztuna egitea, non euskara ardatz den, ikasle guztien hizkuntza gaitasuna bermatzeko.

LORPEN ADIERAZLEAK

2015-2016

Hizkuntza proiektua egiteko gida egin eta zabaldu da ikastetxeen artean.

Dagozkion deialdien bidez sustatu egin da proiektu eleaniztunak zabal daitezzen EAEko ikastetxeen erdira (horietatik 200 ikastetxe publiko), bakoitzak bere egoera soziolinguistikoaren arabera eta euskara ardatz hartuta.

2019-2020

L3.5.1.- EAEko ikastetxeen % 100ak Ikastetxeko Hizkuntza Proiektu eleaniztuna dauka, bakoitzak bere egoera soziolinguistikoaren arabera eta euskara ardatz duena.



L.4.- IKASMATERIALAK ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (L4)

2.4.1.- SARRERA

Material didaktikoak honela ulertzen dira: ikasleei nahiz irakasleei irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak planifikatzen eta/edo garatzen eta/edo ebaluatzen laguntzea helburu duten eta horretarako propio sortuak izan diren materialak. 295/1998 Dekretuak definitzen ditu kurrikuluaren garapenerako oinarritzko ikaskuntzarako diren materialak.

Material didaktikook ikasle eta irakasleen esku dauden baliabideak dira, beraz; eta malgutasunez erabili behar dira, testuinguruak agindutako egoeretara, eskola bakoitzaren beharretara eta ikasleen ezaugarrietara egokituz.

Eskarmentuak erakusten digu material didaktikoak ezinbesteko baliabideak ditugula, gure hezkuntza-eredu pedagogikoa ezarriko bada. Zenbait herrialdetan egindako ikerketek frogatu dutenez, irakasleek irakaskuntzan ematen duten denboraren ehuneko luze batean erabiltzen dituzte material didaktikoak. Baina material didaktikoei, berek bakarrik, ez dute ezertxo ere aldatzen, ikasle zein irakasleek lortu nahi dituzten helburuak erdiesteko eskura dituzten tresna, baliabide edo bitartekoak baino ez baitira materialok. Ikasle eta irakasleei laguntzea eta haien zerbitzura egotea, horixe da material didaktikoen funtzioa, baina ez, inolaz ere, haiek ordezkatzea.

Europar Batasuneko Kontseiluak emandako argibideak jarraituz eta Sailak sustatu nahi duen marko pedagogikoarekin bat eginez, hobekuntza plan honek zera proposatzen du etorkizunari begira: material didaktikoak sortzea eta erabiltzea eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan txertatzea, bi ildo estrategikoen arteko elkarrekintza estua gertatze aldera.

Diagnostikoa

Ikas-irakas materialgintzari dagokionez:

Euskarazko ikasmaterialgintza sustatzeko EIMA programa sortu zen 1982. urtean, Euskararen Normalizaziorako Legeak hartarako ematen duen babesa oinarritzat harturik. EIMA programaren xedea da unibertsitate aurreko ikasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortu, argitara eman eta zabalkundea izan dezaten administrazioetik bertatik sustatzea. Horretara bideratu dira EIMA deialdietako diru-laguntzak:

- EIMA 1, Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko material inprimatuen edizioari zuzendutako diru-laguntzak.
- EIMA 2.0, Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko euskarri digitaleko edizioari zuzendutako diru-laguntzak.
- EIMA 4, Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortzeko eta egokitzeko diru-laguntzak.

Programa honek argitaletxeek nahiz ikastetxeek curriculum-materialak sortzea ekarri du, euskararen ikaskuntzan eta normalizazioan asko lagundu dutelarik, baita hezkuntza-eredu aurreratu bat finkatzen lagundu ere.

Hala ere, ikasmaterialen sorkuntza desorekatua da gaien arabera, hau da, gai batzuen inguruan material nahiko sortzen da, beste batzuen kasuan, berriz, oso gutxi, eta badira gaiak batere material sorkuntzarik ez daukatena. Egoera hau pixka bat aldatzen da deialdien arabera.

Bestalde, "Testuliburuaren Kudeaketa Solidarioa" deitutako programa orain arte baliagarria izan da irakaskuntza publikoan familiek eta ikasleek idatzitako materialak eskura zitzaten, baina ez du bultzatu teknologia eta pedagogia berrien sarrera irakatsi eta ikasteko prozesu horretan.

Ikastetxeek garapena izan dute inprimatutako eskola-materialen kudeaketan beren errealitatera egokituagoak dauden beste batzuk aurkitze aldera edo material digitalak pixkanaka sartze aldera, hezkuntza-mailen, irakasleen, ikastetxeko proiektuen, irakasgaien edo beste faktore batzuen arabera, faktore horien artean beharrezko aldaketak bultzatuko dituzten hezkuntza-politikak daudelarik.

IKTen txertatzeari dagokienez

Eskola 2.0 programa izan da azken urte hauetan (2009 geroztik) IKTen uztarketa estrategiko honen sustatzaile nagusia, ikastetxeetan. Nahiz eta irakasle orok behar-beharrezkotzat hartzen duen teknologia digitalaren uztarketa, gero irakas-ikaskuntza prozesuen emaitzetan eragin eskasa ari da behatzen. Ikerketek hala adierazten dute behintzat. Hobekuntza ez da IKTen erabilerarekin bakarrik gertatuko, ezinbestekoa da burutzen diren jardueren justifikazio pedagogikoaz hausnartzea eta ikasteko metodología eraldatzailearen bidetik lan egitea. Horrela, Heziberri 2020-ren hezkuntza eredu pedagogiko berriak eskaintzen duen andamiaje metodologikoa funtsezkoa gertatuko da aurrerantzean, baliabide digitalen erabilerarako eta irakasleen formazio ekintzetarako.

Horrez gain, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak ezarritako *"Oinarrizko Hezkuntza amaitzen duen ikasleak konpetentzia digital eta mediatikoa eskuratu behar ditu, alfabetatze edo gaikuntza funtzional osoa bermatzeko"* xedea lortzeko, ezinbestekoa da irakasle ororen konpetentzia digitalak sustatzea.

IKT Heldutasun ereduko ikastetxeen kopuruak eta mailak gora egin dute azken bi urteetan:

Deialdiaren urtea	Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua	Guztira
2012	8			8
2014	42	211	11	264
2015	29	50	9	88
Guztira orotara	79	261	20	360

Datozen urteetan ikastetxe gehienek eman beharko dute pausoa euren prozesu ezberdinak digitalizatzeko: kudeaketa, komunikazio eta ikasgeletako irakas-ikaskuntza prozesuak.

Azken horietan, “Sare_Hezkuntza Gelan” proiektua 70 ikastetxean (35 eskola publikotan) abian jartzeak IKTen erabileraren norabide berriak erakutsiko dizkigulakoan gaude, batez ere, ikastetxeek datozen urteetan hartu beharko dituzten erabaki konplexuetan lagungarria gerta dadin.

Era berean, 2015-16 ikasturtean gertatuko den konektibitatearen hobekuntza lagungarri izango da.

Hobetzeko alorrak

Heziberri 2020 planean, ikasgelara eramandako kompetentzien arabeko ikuspegiak aldaketa metodologikoak dakartza, zereginen arabera lan egiteko eta baliabidetzat hartzen diren jakintzak mobilizatzeko eskatzen baitu arazoak konpondu eta proiektuak garatzeko. Roletan eta irakaskuntza-zereginetan aldaketak ezarri beharra dakar horrek. Ikasleek zeregin aktiboa dute eta irakasleen rola ikaskuntzan bitartekari izatea da, jakintzaren transmisio- eta memorizazio-eredu batetik beste eredu batera igaroz, non irakasleak gida bihurtzen dira, ikaskuntza-egoeren bidez kompetentziak garatzen laguntzeko.

Heziberri 2020 planaren “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruan” adierazten denez, ikasmaterialek **gutxienez honako ezaugarri hauek bete behar dituzte** hezkuntza-eredu pedagogikoarekin koherenteak izan daitezen:

- ✓ Ikasleen irteera-profilean definitutako oinarrizko kompetentziak lortzearen alde egitea.
- ✓ Adierazpenezko, jarrerazko eta prozedurazko edukiak hautatzea, garrantzi soziokultural, zientifiko, funtzional eta pedagogikoko irizpideak kontuan hartuta, baina aldi berean ulerturik edukiok ikaslearen esku jarritako baliabideak baino ez direla, eta egoera-familia bati aurre egiteko gai dela erakusteko balio diotela.



- ✓ Euskal curriculum espezifikoari eta gainerako esparru guztiei dagozkien adierazpeneko edukiak uztartzea, eta, horretan, neurritasunari eta ikuspegiari dagokienez, orekaz jokatzeari.
- ✓ Zehar-prozedurak eta prozedura diziplinarrak sistematikoki nahiz esplizituki irakasteko irizpideak ematea.
- ✓ Hizkuntzei buruzko planteamendu integratu eta integral bat egitea curriculum-materialetan.
- ✓ Baliabide digital eta mediatikoak normaltasunez uztartzea diziplina-arlo guztietan, baita beste baliabide batzuekin batera ikasten jarraitzeko aukera ematen duten jardura guztietan ere.
- ✓ Zenbait orientabide proposatzea, eta autoebaluazioa, ebaluazio diagnostikoa eta ebaluazio hezigarria lantzeko proposamenak egitea, baita ikasitakoak indartzekoak eta aniztasunaren trataera sakontzekoak ere.
- ✓ Ebaluazio egiaztatzaile edo batutzaila lantzeko proposamenak egitea, bi ebaluazio-xede hauek barnean harturik: a) Konpetentziekin nahiz oinarrizkotzat jotzen diren beste eduki batzuekin lotutako egoera-familiak ebazteko ikasleek beharrezkoak dituzten adierazpeneko, jarrerazko zein prozedurazko baliabide eta edukien ebaluazioa; b) Integraziozko egoerak/arazoak ebazteko beharrezkoak diren edukiak mobilizatu eta transferitzeko premiazkoak diren konpetentzien ebaluazioa.

Etorkizunari begira hezkuntza marko pedagogiko honek markatzen digun ildo horretatik egingo dugu lan, bai Sare_Hezkuntza gela proiektuen garapenean, baita ikasleentzako ikasmaterialen programaren³¹ zabalkundearen ere.

³¹ *Ebazpena, 2015eko ekainaren 23koa, Hezkuntza sailburuordearena, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eskola publikoetako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako ikasmaterialen Programari buruzkoa.*

2.4.2.- HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

<p>L4.1.- Heziberri 2020 planean bildutako planteamendu didaktiko eta metodologikoarekin koherenteak diren ikasmaterialen eta hezkuntza-edukien sorkuntza eta zabalkundea bultzatzea (Hezkuntza Baliabide Irekiak –HBI– , eduki digital eta inprimatuak,...) ikasle guztien kompetentzia-garapenean eta irakaskuntza-praktiken berriztatze metodologikoan laguntzeko.</p>	
<p>LORPEN-ADIERAZLEAK</p>	
<p>2015-2016</p>	<p>2019-2020</p>
<p>Curriculum-material inprimatu eta digitalak aztertzeko eta lantzeko gida egin da eta zabaldu da, irakasle guztien prestakuntzaren bidez.</p>	<p>L4.1.1.- Curriculum-material inprimatu eta digitalak zabaldu den gidaren arabera landu dira, dagozkien prestakuntzaren ondoren.</p>
<p>Webgunean argitaratu dira (Heziberri 2020, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza eta Berritzegune-BG) arlo, ikasgai eta etapa bakoitzeko adibideak, eta irakasle guztien artean banatu dira.</p>	<p>L4.1.2.- Irakasleek arlo edo ikasgai bakoitzeko unitate didaktikoak landu dituzte, dagozkien adibideak kontuan izanik.</p>
<p>Ikasmaterialak eskuratzeko ebazpen bat argitaratu da, ikastetxe publikoek material digitala eskuratzeko bultzatzen duena.</p>	<p>L4.1.3.- SHGko ikastetxe publiko guztiek ikasmaterial digitalak eskuratu dituzte.</p>
<p>EIMAre eta R-400en diru-laguntza aginduak berrikusi eta egokitu dira, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren arabera eta Hezkuntza Baliabide Irekien material digitala egitea bultzatzeko.</p>	<p>L4.1.4.- Deialdiak ezarri dira euskarazko ikasmaterialak sortzeko edo egokitzeko, eta planteamendu oso bati erantzun diezaietela, Oinarrizko Hezkuntza guztia bilduko duena, hezkuntza-eredu pedagogikoari eta curriculum-materialak lantzeko gidari arabera.</p> <p>L4.1.5.- EIMAre eta R-400en diru-laguntza aginduek bultzatu dute sortutako material guztiak Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat etortzea eta horien % 40 HBI baliabide digitalak izatea.</p>
<p>Sare_Hezkuntza ataria martxan jarri da, eta material digital asko edukiko ditu, euskarazko materialak azpimarratuz, ondoren ikastetxeetan erabiltzeko.</p>	<p>L4.1.6.- Sare_Hezkuntza ataria sendotu da, kuantitatiboki eta kualitatiboki Hezkuntza Baliabide Edukien aniztasun handiarekin, hainbaten eskutik, hala nola SHG zentro guztiak, BG, IRALE, EIMA,...</p> <p>L4.1.7.- Curriculumaren garapena bultzatzen duten eduki digital guztiak Sare_Hezkuntzan bateratu dira.</p>



L4.2.- Ikastetxeen eraldaketa teknologiko-pedagogikoa bultzatzea Sare_Hezkuntza Gelan (SHG) proiektuen bidez hezkuntza-proiektuak hobetzeko.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Sare_Hezkuntza Gelan (SHG) proiektuetarako diru-laguntzen Agindua eta Ebazpena argitaratu da, 120 ikastetxe gehiagotarako (horietatik 70 ikastetxe publikoak izango dira), bi ikasturteko iraupenarekin.</p>	<p>L4.2.1.- Sare_Hezkuntza Gelan (SHG) proiektuetarako diru-laguntzen Agindua eta Ebazpena argitaratu da, ikastetxeen % 100arentzat.</p>
<p>70 SHG ikastetxeetako ikasleek gailu digitalak eskuratzeko laguntzen Agindua argitaratu da, “eskola-materialean” bekadun izan direlarik 2015-16 ikasturtean.</p>	<p>L4.2.2.- SHG ikastetxeetako ikasleen % 100ek gailu digitalak eskuratzeko laguntzen Agindua argitaratu da, “eskola-materialean” bekadun izan direlarik 2018-19 ikasturtean.</p>
<p>Hezkuntzaren alorrean eskumena duen Sailak ikastetxeen beharrianak aztertu ditu, ikastetxeek IKTetan maila aurreratua lortzen joateko.</p> <p>Irakasle guztiak konpetentzia digitaletan (DIGCOM) prestatu dira, ikastetxeek mailaz aurrera egin dezaten IKT Heldutasun Teknologikoko Ereduan: ikastetxeen % 90ek IKT Heldutasunaren Oinarrizko Maila lortu dute.</p>	<p>L4.2.3.- Irakasle guztiak DIGCOMPen prestatu dira, ikastetxeek mailaz aurrera egin dezaten IKT Heldutasun Teknologikoko Ereduan: ikastetxeen % 60k IKT Maila Aurreratua lortu du.</p> <p>L4.2.4.- Sare_Hezkuntza ataria erabili da irakasleak prestatzeko.</p> <p>L4.2.5.- Prestakuntza eman zaie SHG zentro guztietako dinamizatzaile teknologiko (DINATIC) guztiei.</p>
<p>SHG proiektu bakoitzaren diseinuaren balorazioko eta prozesuaren jarraipeneko txostenak egin dira, hurrenez hurren. SHG zentroak koordinatzeko aurreikusitako 4 bilera espezifikoak ere egin dira.</p> <p>Ikastetxe publikoen konektibitatea eta barne-arkitektura hobetu dira.</p>	<p>L4.2.6.- Ikasleen konpetentzia digitala ebaluatu da, dagokion curriculum-dekretuan ezarritako irteera-profilaren arabera.</p> <p>L4.2.7.- Ikastetxeen % 100ek kanpoko eta barruko konektibitate-egoera egokia dauka.</p>



<p>L4.3.- EAEko gizarte- eta hezkuntza-arloko agente guztien arteko lankidetzaz indartzea sareko ikaskuntzako Sare_Hezkuntza komunitate birtuala eraikiz jakintza sortu eta partekatzeko.</p>	
<p>LORPEN-ADIERAZLEAK</p>	
<p>2015-2016</p>	<p>2019-2020</p>
<p>Gizarte- eta hezkuntza-agenteen lankidetzaz izatea Sare_Hezkuntza ataria elikatzeko.</p>	<p>L4.3.1.- SHG ikastetxeen % 100ek eskolarteko lankidetzaz proiektuetan parte hartu du Sare_Hezkuntza atariaren bidez.</p>
<p>Sare_Hezkuntzaren etorkizuneko deialdietan parte hartu nahi duten ikastetxeek indarrean dauden Sare_Hezkuntzaren proiektuak ezagutzeko eta haiekin elkarreraginean jarduteko posibilitatea ezartzea.</p>	<p>L4.3.2.- SHG ikastetxeen % 100ek, eskolarteko lankidetzaz proiektu europarretan parte hartu du Sare_Hezkuntza atariaren bidez proiektu eleaniztunarekin.</p>

2.5.- EBALUAZIOA ETA IKERKETA (L5)

2.5.1.- SARRERA

Hezkuntza-prozesuaren eta emaitzen garapenean eragina duten elementuen ebaluazioa, baita haiei buruzko ikerketa ere, beharrezko baldintzak dira ondo oinarritutako berrikuntzarako eta hezkuntza-sistema hobetzeko.

Zentzurik zabalenean, ebaluazioa prozesu konplexua da, alderdi ugari eta askotarikoak dituena, ikaskuntza-prozesuak osagaitzat dituen elementu guztiak tartean hartzen dituena: ikasleak, irakasleak, familiak, curriculumak, metodologia, baliabideak, ikastetxea, hezkuntza-sistema, testuingurua eta hezkuntza-eskaerak, eta abar. Elementu horiek guztiak ebaluatu egin daitezke, eta ebaluazio horien emaitzak ikerketa-prozesuen pean jarri behar dira, hezkuntza-sistemaren hobekuntzan eta berrikuntzan eragina duten neurriek oinarri gisa har ditzaketan jakintza berriak sortzeko xedez. Ildo estrategiko honen xedea ikasle, irakasle eta hezkuntza-sistemaren ebaluaziora mugatzen da, baita ebaluazio horien eta hezkuntza-sistemaren berrikuntza eta hobekuntzari lotutako beste alderdi batzuen emaitzen ikerketara ere.

Hezkuntzaren gaineko eskumenak lortu zituenetik, EAEko hezkuntza-sistemak kezka nagusi hau izan du: bere egoera eta garapenari buruzko informazio eta datu objektiboak emango dizkion ebaluazio-sistema zorrotz eta fidagarri bat eskuratzea, eta kezka hori nabarmen gehitu da azken hamarkadan. Gaur egun, kanpo-ebaluazioko prozesuekin lotutako nazioarteko ildo nagusiek indartu egin dute ebaluazio-sistema propioa izatearen aldeko interesa. Europar Batasunak ere, etorkizuneko hezkuntzaren bost erronketako bat horixe dela aitortzen du, eta hezkuntza-sistemaren beraren premiak ere ildo beretik doaz.

Diagnostikoa

Ikasleak ebaluatzea

Azken hamarkadan EAEko hezkuntza-sistemak oso modu esanguratsuan egin du aurrera ebaluazioaren kulturaren arian ariko ezarpenean oro har, eta konpetentzien arabera ikasleen ebaluazioaren ezarpenean, bereziki. Ikastetxeei igorritako diagnostiko-ebaluazioetako txosten eta emaitzak eztabaidaren eta barne-gogoetaren funtsezko elementu bihurtu dira ikastetxe ia guztietan eta ikastetxe horiek irakatsi eta ikasteko prozesuen berrikuspen kritikoa ahalbidetu du etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik.

2003ko, 2006ko, 2009ko, 2012ko eta azkena 2015eko PISA ebaluazioak, EAEko 15 urteko ikasleen lagin oso zabal bati egindakoak, eta 2009ko, 2010eko, 2011ko, 2013ko eta 2015eko Diagnostiko Ebaluazioekin batera, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeetako ikasle



guztiei eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleei egindakoak, bereziki lagungarriak izan dira ebaluazioaren kulturaren garapen orokor honetarako.

Kanpo-ebaluazio horien bidez, ikastetxe guztiek informazio zehatza eta konparagarria izan dute bi hizkuntza ofizialetako eta ingeleseko hizkuntza-kompetentziei buruz, kompetentzia matematikoari buruz, kompetentzia zientifikoari buruz, kompetentzia sozial eta herritarrari buruz eta ikasten ikastearen kompetentziari buruz.

ISEI-IVEIk igorritako emaitzen txostenak erabili dituzte ikastetxeek daukaten barne-informazio oso ugaria osatzeko, kanpo-erreferentziekin, eta erreferentzia horiei esker konparazioak egiteko aukera dute, berenaren antzeko beste ikastetxe batzuekin ikuspuntu sozioekonomiko eta soziokulturaletik, hizkuntza-eredutik eta titulartasunetik begiratuta, baita berekin ere ebaluazio guztietan zehar.

Barne-ebaluazioko prozesu zorrotz honen ondorioz hobetzeko planak onartu dira eta eguneratu dira aldi behin, Berritzeguneen zein Ikuskaritzaren kanpo-ekarpenarekin aberastuta, eta beharrezko hobekuntza-ekintzak hartu dira erregulariki.

Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta hezkuntza-ikerketa

Ikastetxeetan aldi behin ikasleei egindako ebaluazioen emaitzak eta EAEko hezkuntza-sistemaren hobekuntzari lotutako gai buruz ondoren egindako ikerketen garapena oso lagungarriak izan dira ebaluazioaren kultura arian-arian ezartzeko, arestian adierazi dugunez.

Ildo estrategiko batzuei lotuta dauden eta EAEko hezkuntza-sistemaren laguntza-sistemek ikertu dituzten gaien artetik, honako hauek azpimarra daitezke, adibidez:

Hezkuntza inklusiboaren eta aniztasunarekiko erantzunaren eremuan:

- Ikastetxeetako bizikidetzak eta berdinen arteko tratua txarrak.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak egoteak gainerako ikasleentzako errendimenduan duen eragina eta hezkuntza-sistemak Hezkuntza Premia Bereziei ematen dien erantzuna.
- Kurtso-errepikapenen ondorioa ikasleentzako irakatsi eta ikasteko prozesuan eta eskola-uztea.

Elebitasunaren eremuan, hezkuntza eleaniztunaren baitan:

- Euskaraz lortutako hizkuntza-kompetentziako mailak.
- Hizkuntzak eta haien ikaskuntza.
- Probako hizkuntzak ebaluazioetako emaitzetan duen eragina.
- Hezkuntza Marko Hirueleduna.

Ikasmaterialak egitea eta kudeatzearen eta IKTak irakatsi eta ikasteko prozesuetan txertatzearen eremuan:

- IKTak ikastetxeetan txertatzea.

Hezkuntza-sistemaren ebaluazioaren eta ikerketaren eremuan, lehendik adierazi diren ikerketez gain:

- Ikastetxe eraginkorrak edo balio erantsi handikoak, denboran zehar hobetzen duten, okerragotzen duten edo beren emaitzak atxikitzen dituzten ikastetxeen azterketa, bikaintasuna.
- Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen Bigarren Hezkuntzako 2. mailarako bilakaeraren luzetarako azterlana.

Hezkuntza-sisteman egindako ikasleen ebaluazioen emaitzak eta eskuragarri dauden datu-baseak abiapuntutzat hartuta garatu diren ondorengo ikerketak baliagarriak izan dira, era berean, Sailak zenbait jardun-programa diseinatu, martxan jarri eta berrikusi zitzaizkien (Hamaika Esku emaitza eskasak dituzten ikastetxeei zuzenduta, eleaniztasun-proiektuak, euskara jakin eta ikastetxeetatik kanpo zein ikastetxeetan erabiltzeko Arrue programa, bikaintasunaren hobekuntza, ...).

Era berean, ebaluazio hauen emaitzek Sailaren informazio publikoko sistemak elikatzen dituzte: Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema, Euskararen Adierazle Sistema (EAS), eta abar.

2001. urteaz geroztik hezkuntza-adierazleen sistema bat daukagu, adierazle horiek koherenteak direlarik estatuko sistemarekin eta Europako adierazleen sistemekin, baina berrikusi eta hobetu beharrekoa modu iraunkorrean eguneratzen dela bermatzeko, eta horrelako informazioa ere daukaten beste erakunde eta zerbitzu batzuekin lotuta dagoela bermatzeko (Eustat, hezkuntza-estatistika, Sailaren zerbitzuak).

Irakasleak ebaluatzea

Ikasleen ikaskuntzan –eta, horrenbestez, hezkuntza-sistemen kalitatean– eragin handia duen aldagaietako bat irakasleen aldagaia da.

Orain arte, EAEko hezkuntza-sistemako irakasleen konpetentziei buruz egindako ebaluazioek egoera jakin batzuei erantzun diete, hala nola praktika-fasea egitea oposizioen prozeduretan, kasu berezietako irakasleen konpetentziari buruzko erreklamazioei eman beharreko erantzuna, zerbitzu-eginkizunen eskaera, eta abar. Ez da esku-hartze sistematikorik egin esparru horretan.

Hobetzeko alorrak

Proposatzen diren hobetzeko arloak bereziki oinarritzen dira premia batean, hots, orain arte egindako ebaluazioaren, ikerketaren eta berrikuntzaren planteamenduak Heziberri 2020

Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruan sortzen diren testuinguru eta beharizan berrietara egokitzeko premian.

Ikasleen ebaluazioari dagokionez, betiere orain arte garatutako ildoetara jarraiki, EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko erronka garrantzitsuetako bat, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoarekin koherentea izango den ikasleak ebaluatzeko sistema propio bat bultzatzea da. Horri lotuta, honako **hobetzeko arlo** hauek planteatzen dira:

- ✓ Konpetentzien hezkuntzaren ikuspegiarekin egiten den ikasleen ebaluazioaren koherentzia berrikustea, eta ikasleen irteera-profilean definitutako oinarrizko konpetentzia guztiak arian-arian ebalua daitezela ziurtatzea.
- ✓ HHPK Sailak egindako kanpo-ebaluazioaren eta ikastetxeek egindako barne-ebaluazio diagnostiko nahiz etengabearen planteamendu osagarri bat egitea.

Irakasleen ebaluazioari dagokionez hobetzeko tarte handia dago, gutxi garatuta dagoen eremua delako. Dekretuetan, ikasleen irteera-profila abiapuntutzat hartuz, lehen aldiz irakasleen konpetentzia-profila finkatu da, ebaluaziorako eta hobekuntzarako, hasierako eta etengabeko prestakuntzarako eta haren hautespen eta sustapenerako erreferentzia izango dena. Horri jarraiki, honako **hobetzeko arlo** hauek planteatzen dira:

- ✓ Irakasleen konpetentzia-profilearen ezaugarrietan oinarritzen den irakasle-lanbidean sartzeko sistema baterantz bideratzea.
- ✓ Irakasle aditu eta trebeen tutoretza eta ikuskapena izango duen prestakuntza-praktikaldia bultzatzea irakasle berriak hezitzaile efiziente bihurtzeko xedez.
- ✓ Irakasleek karrera profesionala garatzeko eta ikastetxean bertan mailaz igotzeko aukera sustatzea.

Hezkuntza-sistemaren ebaluazioaren eta ikerketaren eremuan, honako **hobetzeko arlo** hauek proposatzen dira:

- ✓ Ebaluazioa eta ikerketa alderdi esanguratsuetara orokortzea ildo estrategiko guztietan.
- ✓ Ikerketa-plan bat ezartzea unibertsitateekin, eta zehazki EAEko Hezkuntza Fakultateekin.
- ✓ Ikerketen ondorioen eta ebaluazioen emaitzen gaineko hezkuntza-berrikuntzak babestea.
- ✓ Guneen eta denboraren berrantolaketari buruzko ikerketa eta esperimentazioa egitea, konpetentzien hezkuntzaren planteamenduarekin bat etorritz.



2.5.2.- HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L5.1.- Ikastetxeetako irakasleei laguntzea oinarrizko kompetentzia guztien barneko eta etengabeko ebaluazioa egin dezaten, zeharkakoak zein diziplina baitakoak direla, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat etorriz.	
2015-2016	2019-2020
<p>Berritzeguneez Unitate Didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko Gida bat diseinatu dute Hezkuntza Esparru Berrian, non kompetentzien arabera lan egitea eta ebaluatzea biltzen den.</p> <p>Berritzeguneez “egoerako” eredu deskriptibo bat landu dute, eta integrazio-egoeren proposamenak alor eta etapa bakoitzeko.</p> <p>Ikuskaritzak programazio didaktikoko gida egokitu eta bidali du eta programazio-ereduak berregin ditu alor, ikasgai eta etapa guztietarako.</p> <p>Ikuskaritzaren eta Berritzeguneez arteko koordinazioa eta informazio-trukea hobetu dira, baita zentroekiko lankidetzaren ere.</p>	<p>L5.1.1.- Ikastetxeetako irakasleek beren programazioak egiten dituzte, irakatsi eta ikasteko beren prozesuak garatu dituzte eta beren ikasleak ebaluatu dituzte hezkuntza-administrazioak egindako gida eta laguntza-tresnen arabera, hezkuntza-esparru berriarekin koherentea, eta beren Hezkuntza Proiektu propioa kontuan izanda.</p>
<p>Kurtso eta eskola-etapa bakoitzeko azken ebaluazioko akta aldatu da, prestakuntza- eta egiaztapen-alderdiak kontuan izanik ikasleek beren irteera-profilari lotuta eskuratutako kompetentzietan lotuta.</p>	<p>L5.1.2.- Kurtso bakoitzaren azken ebaluazioak ikastetxeetako irakasleek egin dituzte, Berritzeguneez ikastetxe horien eskuetan jartzen dituzten irizpideak eta ereduak, eta ikastetxeen beren Hezkuntza Proiektua kontuan izanda, eta horrela ikastetxeetan integratzen dute oinarrizko kompetentzia guztien ebaluazioa.</p>



L5.2.- Ikastetxeekin batera planifikatzea eta izaera formatiboa duten diagnostiko-ebaluazioak, etapa bakoitzaren erdian, barne-gogoeta aktibatzen eta etengabeko hobekuntzako prozesuei laguntzeko ikastetxe bakoitzeko hobetzeko planak eguneratuz eta beharrezkoak diren sendotze-neurriak hartuz.

2015-2016	2019-2020
<p>Sailaren zerbitzuak (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) ikastetxeekin lankidetzan aritzen dira Lehen Hezkuntzako 3. mailako ebaluazioaren diseinuan (esparrua, irizpideak, probak, pizgarriak, familien txostenak, eta abar).</p> <p>ISEI-IVEIk ikastetxeen eta familien txostenak bidali ditu, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen 2014-2015 kurtsoaren diagnostiko-ebaluazioari dagozkionak.</p> <p>Sailaren zerbitzuak (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) Lehen Hezkuntzako 4. mailako ebaluazioaren diseinua egiten dute (esparrua, irizpideak, probak, pizgarriak, familien txostenak, eta abar.), eta 2016-2017 kurtsoan egingo da.</p>	<p>L5.2.1.- Ikastetxeek oinarrizko kompetentzia diagnostiko-ebaluazioak egin dituzte Lehen Hezkuntzako etaparen erdian, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren zerbitzuek eskainitako irizpide eta ereduaren arabera.</p>
<p>Sailaren zerbitzuak (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) DBHko 2. mailako ebaluazioaren diseinua egiten dute (esparrua, irizpideak, probak, pizgarriak, familien txostenak, eta abar), eta 2016-2017 kurtsoan egingo da.</p>	<p>L5.2.2.- Ikastetxeek oinarrizko kompetentzia diagnostiko-ebaluazioak egin dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etaparen erdian, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren zerbitzuek eskainitako irizpide eta ereduaren arabera.</p>



L5.3.- Etapa-amaierako kanpoko eta banakako ebaluazio diagnostikoa egitea Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleek beren irteera-profilean aurreikusitako oinarrizko kompetentzia guztiak zenbateraino egiaztatu dituzten egiaztatzeko, eta horrela ebaluazio-sistema zorrotz, fidagarri eta etengabe bat izateko, informazioa eta datu objektiboak ekarriko dituen, EAEko hezkuntza-sistemaren hobekuntzan eragina izango duten erabakiak hartzeko baliagarriak izango direnak.

2015-2016	2019-2020
<p>ISEI-IVEIk eta Berritzeguneez 6 lantaldetan diseinatu dituzte Lehen Hezkuntzako 6. mailako esparru teorikoa, pizgarriak, itemak eta ebaluazio-koadernoak, zuzenketa-irizpideak eta txosten-ereduak, ikasleen irteera-profilaren arabera.</p>	<p>L5.3.1.- Sailak banakako kanpoko diagnostiko-ebaluazioak egin ditu, Lehen Hezkuntzako 6. mailaren amaieran, Lehen Hezkuntzako ikasleen irteera-profilari dagozkion kompetentzien lorpen-maila zein den jakiteko eta EAEko hezkuntza-sistemaren hobekuntzan eragina duten neurriak hartzeko.</p>
<p>ISEI-IVEIk, Ikuskaritzak eta Berritzeguneez DBHko 4. mailako esparru teorikoa diseinatu dute.</p>	<p>L5.3.2.- Sailak banakako kanpoko diagnostiko-ebaluazioak egin ditu, DBHko 4. mailaren amaieran, DBHko ikasleen irteera-profilari dagozkion kompetentzien lorpen-maila zein den jakiteko eta EAEko hezkuntza-sistemaren hobekuntzan eragina duten neurriak hartzeko.</p>



L5.4.- Nazioarteko ebaluazioetan parte hartzea, beharrezkoak diren eta EAEko hezkuntza-sistemarekin koherenteak diren egokitzapenak eginez, ikasleen emaitzei buruzko konparazio-datuak izateko eta beharrezko hobetze-planak eta sendotze-neurriak lantzeko.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>ISEI-IVEIk 2013ko Pisa for Schools pilotajearen parte hartu duten 32 ikastetxeei igorri dizkie beren emaitzen txostenak.</p>	<p>L5.4.1.- EAEk konparazio-datuak ditu beste herrialde batzuekin eta estatuko beste erkidego batzuekin 15 urteko ikasleen kompetentzia zientifikoaren, irakurtzeko kompetentziaren eta kompetentzia matematikoaren ebaluazioari buruz.</p>
<p>50 ikastetxeko lagin zabal batekin parte hartu da lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleen irakurrizko ulermenari buruzko PIRLS 2016 nazioarteko ebaluazioan.</p> <p>Nazioarteko ebaluazioetan parte hartzearen bideragarritasuna aztertu da, lagin handituarekin, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakunderena (ELGA) (OCDE) (TALIS 2018, PIACC 2018) zein International Association for the Evaluation of Educational Achievement (IEA) (TIMSS 2019, PIRLS 2021) erakundearekin.</p>	<p>L5.4.2.- EAEk konparazio-datuak ditu beste herrialde batzuekin eta estatuko beste erkidego batzuekin Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasle eta irakasleen kompetentzia zientifikoaren, irakurtzeko kompetentziaren eta kompetentzia matematikoaren ebaluazioari buruz, baita biztanleria helduarena ere.</p>



L5.5.- Irakasleen kompetentzien mapa definitzea, egungo ikerketetatik eta curriculum-garapeneko dekretuetan zehazten den ikaslearen irteera-profiletik abiatuta, irakasleen ebaluazio-prozesu guztietan erreferentzia izan dadin.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Irakasle-profila definitu da (kompetentziak, dimentsioak eta irizpideak), eta behaketa-zerrendak eta ebidentzia-bilketa egin dira.</p> <p>Irakasleen kompetentzia-profila irakasleen artean banatu da eta etorkizuneko irakasleak prestatzen ari diren ikastetxe guztietara bidali da.</p>	<p>L5.5.1.- Irakasleen kompetentzien mapa definituta dago ikasleen irteera-profiletik abiatuta, eta erreferentzia gisa erabiltzen da irakasleen ebaluazioa eraginpean hartzen duten prozedura guztietan.</p> <p>L5.5.2.- Sistematan sartu beharreko irakasle berrien premia planifikatu da, baita irakasleen txandakatzea planifikatzeko proposamenak eta irtenbideak ere.</p>

L5.6.- Irakasleen karrera profesionala ezartzea, irakasle-kompetentzien mapa erreferentzia gisa hartuta irakasleen hobekuntzan laguntzeko.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Lantalde bat eratu dute Hezkuntza Sailburuordetzak eta Administrazio eta Zerbitzuetako Sailburuordetzak arau-proposamen bat lantzeko irakasle-karrera profesionala ezartze aldera, ikasleek irteera-profilean definitutako kompetentziak lortzeko beharrezkoa den kompetentzia profilaren arabera.</p>	<p>L5.6.1.- Irakasle-karrera profesionala aurrera egiteko ibilbide gisa ezarrita dago irakaskuntzaren hobekuntzan (maila progresiboak bereizitako erantzukizun eta pizgarriekin erantzukizunen arabera, irakasleen artean hobekuntza bultzatuko eta motibatuko dutenak).</p> <p>L5.6.2.- Irakasle-karrera profesionala ezarritako maila guztietan ari da aplikatzen.</p>



L5.7.- Hezkuntza-sistema ebaluatzea datu objektiboak izateko (konparatiboak), eta erabakiak hartzeko eta sistema hobetzeko baliagarriak izango diren ikerketak egitea.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Hobetzeko Plan honetan profilatutako ildo estrategikoekin eta hezkuntza-sistemaren helburuekin zuzenean lotutako ikerketa-gaien ondorio garrantzitsuenak diseinatu eta berrikusi dira.</p> <p>Emaitza eskasak eta balio erantsi txikiagoa dituzten ikastetxeen ikerketa eta ebaluazioa sakondu da, emaitzetan aurrera egin nahi bada aldaketaren xede nagusi bihurtzen direlako.</p> <p>Ikasleen ebaluazioaren esparruak zabaldu dira, pixkanaka oinarritzko kompetentzia guztietara hedatuz.</p> <p>Laguntza-zerbitzuen, Ikuskaritzaren eta ISEI-IVEIren lanpostuen eta haien hurrenez hurreneko zerbitzu-gutunen kompetentzia-profilaren definizioa hasi da.</p> <p>Ikastetxeetan espazioaren diseinu arkitektonikoari eta altzarien ezaugarriei eta denboraren kudeaketari lotutako ikerketa bat egiteko oinarriak finkatu dira, kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren aldaketa metodologikoarekin bat etorritz.</p>	<p>L5.7.1.- Hobetzeko Plan honen ildo estrategikoen helburuak ebaluatu dira, eta Hezkuntza-sistema hobetzeko erabakiak EAEko hezkuntza-sisteman egiten diren ikerketa eta ebaluazioetan ohiko moduan lortutako datu objektiboetan oinarrituta hartu dira.</p> <p>L5.7.2.- IKTetan osorik oinarritutako irakatsi eta ikasteko metodologia berrietan aplikatutako ikerketako proiektuak garatu dira.</p> <p>L5.7.3.- Laguntza-zerbitzuen, Ikuskaritzaren eta ISEI-IVEIren lanpostuen eta haien hurrenez hurreneko zerbitzu-gutunen kompetentzia-profila ebaluatu da.</p> <p>L5.7.4.- Guneen eta denboraren berrikuntzako esperientzia pilotuak martxan jarri dira eta haien emaitzak ebaluatu dira, kompetentzien arabera hezkuntza-ereduarekin bat etorritz.</p>

2.6.- IKASTETXE PUBLIKOEN AUTONOMIAN SAKONTZEA (L6)

2.6.1.- SARRERA

Aurreko ildo estrategikoen hartzaileak titulartasun publikoko ikastetxeak zein titulartasun pribatuko itunpeko ikastetxeak dira. Ildo estrategiko hau, aurrekoak ez bezala, ikastetxe publikoei dago eskusiboki zuzendua, gehiago sakondu behar baitute, itunpekoek ez bezala, baliabide material eta ekonomikoen kudeaketa autonomoen eta langileen kudeaketan.

Diagnostikoa

Ikastetxeen autonomia Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1 / 1990 Lege Organikoaren 2.3.f) artikuluan jada bildutako printzipioa da (autonomia pedagogiko gisa), eta lege-testu bereko 57. eta 58. artikuluetan garatutakoa, artikuluek antolamenduko eta kudeaketa ekonomikoko esparruetara zabaltzen dutelarik, autonomia horien sustapena hezkuntza-administrazioei agintzen zaien aldi berean.

Euskal Eskola Publikoari buruz otsailaren 19ko 1/1993 Legearen V. tituluak ikastetxe publikoen autonomia arautzen du, eta oreka bilatzen saiatzen da haienzako autonomia ahalik eta handienaren eta haien gain administrazioak izan behar duen beharreko koordinazio eta kontrolaren artean. Autonomia horren erakusgarri da ikastetxeek beren hezkuntza-, curriculum- eta kudeaketa-proiektuak onartzen eta egikaritzen dituztela, baita beren antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua ere.

Esan daiteke ikastetxe publikoek, oro har, modu progresiboan erabili dutela autonomia pedagogikoa beren Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua eta Ikasgelako Programazioak egiteko eta aplikatzeko, testuinguru espezifiko batera egokituz eta ikasleen aniztasunari erantzunez. Aurrera egin da hobekuntzara bideratutako berrikuntzen ezarpenean ikastetxe bakoitzaren premiei jarraiki, lortutako datuetan eta informazioan oinarrituta, irakasleen autoebaluazioaren zein barne- eta kanpo-ebaluazioaren bidez. Modu progresiboan partekatzen ari dira gainerako ikastetxeekin berrikuntzako jardunbide egokiak.

Dena den, baliabide material, ekonomiko eta funtzionalen kudeaketa-autonomiak ez dio behar beste lagundu autonomia pedagogikoaren garapenari, ezta langileen kudeaketako autonomiak ere, nahiz eta biak beharrezkoak izan autonomia pedagogikoa bideragarria izan dadin. Hala eta guztiz ere, Hauspoa proiektuan parte hartu duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak erreferentziazko esperientzia dira ikastetxeentzat autonomia sakontzeko proiektuetarako. Hauspoa Proiektuaren helburua hezkuntza-administrazioaren bidez berrikuntza-prozesuak bultzatzea da, irakaskuntza- eta antolamendu-praktika hobetuko dutenak eta, horrenbestez, hezkuntza-sistemaren kalitatearen hobekuntza ahalbidetuko dutenak. Berrikuntza-proiektua eskatzen duten ikastetxeek eskaerarekin bat

egiten dute eskola-denboren kudeaketa zein guneen eta baliabide material eta giza baliabideen antolamendua eraginpean har dezaketen aldaketa-proposamenekin.

Oinarriztat hartuta EAEko ikastetxe guztiek antolamenduari, pedagogiari eta kudeaketari lotutako autonomia dutela Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean ezarritakoari jarraiki, baita 2013-2014 ikasturtetik hona ezartzen ari den Hauspoa Proiektuaren berrikuntza-erperientzia ere, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren V. Kapituluaren adierazitako erreferentzietan jarraitasuna emanez “Ikastetxeen autonomia-proiektuari” eskaintzen zaio. Dekretu horrek ikastetxe publiko interesdunei eskaintzen die autonomia horren egikaritzapenean sakontzeko aukera besteengandik bereizi egingo dute hezkuntza-berrikuntzako proiektu baten aurkezpenaren bidez. Aldi berean, baliabide-hornidura handiagoa esleitzeko aukera aurreikusten du, betiere proiektu horiek hori eskatzen badute.

Hemen aurkezten dugun ildo estrategikoaren helburua da ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko plangintza egitea.

Hobetzeko alorrak

ISEI-IVEIren (2015) “Hezkuntza-bikaintasunerantz” dokumentuaren ekarpen eta proposamenen artean bada ikastetxeei eskainitako lan-alor bat hobekuntza gisa autonomia eta identitatea gehitzea proposatzen duena, ez bakarrik esparru pedagogikoan, baita kudeaketan, administrazioan eta finantzaketan ere, ikastetxearen helburuak lortzeko.

Bikaintasun-ikastetxeen ezaugarrietako bat da berrikuntzan duten inplikazioa, lan egiteko modu bat bihurtzen baita, egunerokoan gaineratzen diren prozeduren eta praktiken multzo batekin. Irakasleen arteko lankidetzak da hobekuntzaren motorra, irakatsi eta ikasteko berrikuntzak eragiten baititu. Erabakiak nork bere kabuz hartzeko gaitasuna betekizun bat da berrikuntzak probetxuz bultzatzeko, esparru pedagogikoan eta curriculum-esparruan zein plangintzan, antolamenduan, eta kudeaketa ekonomiko eta langileen kudeaketan.

Eskola-deszentralizazioak eta -autonomiak, kontu-emateak sartzeak eta hezkuntza-sistemak aurre egin beharreko erronka berriek ikastetxeen zuzendaritzak bere gain hartu beharreko erantzukizuna eta lan-karga gehitzen dute eta, horrenbestez, lidergo-premia.

ISEI-IVEIren “Hezkuntza Bikaintasunerantz” txostenean (2015) aipatzen diren ekarpenak eta hobetzeko proposamenak bere gain hartuz ildo estrategiko honetan zehazten den autonomian sakontzeko proiektuak **hobetzeko arlo** gisa lehentasuna ematen die metodologia- eta curriculum-eremuetako autonomia pedagogikoari eta langileak eta baliabideak kudeatzeko autonomiari.



- ✓ Ikastetxeek autonomia pedagogiko baterantz egin behar dute aurrera, irakasleek ikaskuntza kokatuta dauden testuinguru espezifikora egokitu ahal izateko, ikastetxearen errealitatea kontuan izanik.
- ✓ Ikastetxeek malgutasuna izan behar dute, ikasleetara gero eta gehiago egokitutako programak garatzeko.
- ✓ Berrikuntza bultzatu behar da, ikasleen ikaskuntza hobetzeari buruzko aukera berriak ezartzeko eta ikasleen kanpo- zein barne-ebaluazioetatik zein irakasleen autoebaluazioetatik lortutako datuetan oinarrituta haiek praktikan jartzeko.
- ✓ Langile- eta baliabide-kudeaketaren autonomiarantz aurrera egitea beharrezkotzat jotzen da, administrazio- eta finantza-deszentralizazioa eta baliabideen esleipenean eredu-aldaketa bat bultzatzeko.
- ✓ Ikastetxeei egiten zaien baliabide-esleipena haien proiektuen arabera izatea sustatu behar da, eskola inklusiboarekin konpromiso argia eta definitua hartuz, premia gehienak dituzten ikastetxeetara baldintzatutako baliabide osagarriak sartuz, lortu nahi diren helburuen eta emaitzen arabera.
- ✓ Ikastetxe publikoetan profilen definizioan eta irakasle-lanpostuen hautespenean parte-hartzea areagotzeko ahalegina egin behar da.

Autonomia hori guztia, ikastetxeak hasierako ebaluazioa abiapuntutzat hartuz lorpen-adierazleen bitartez lortu nahi dituen helburuak eta emaitzak planteatzen dituen proposamen berritzaile bat eratu behar duten Zuzendaritza Proiektuan eta Autonomian Sakontzeko Proiektu Espezifikoetan artikulatu behar diren arrakastarekin eta hezkuntza-emaitzekin konprometituta dagoen zuzendaritza baten lidergoarekin. Adierazle horietatik abiatuz, Administrazioari kontuen berri emateko prozedurak bideratuko dira. Proiektu horrek aurreikusita dauden helburuak eta emaitzak lortu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak hartuko ditu barnean.

2.6.2.- HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L6.1.- Ikastetxe publikoen autonomia sakontzeko proiektua sortzea, ezartzea eta ebaluatzea, proiektuaren helburuak, edukiak, betekizunak, eta hautatzeko eta ebaluatzeko prozedura definituz, ikastetxeei aukera emateko bere berrikuntza-proiektua modu eraginkorrean egiteko eta garatzeko.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
Ikastetxeen autonomian sakontzeko proiektua diseinatu da dagokion deialdia 2016-17 ikasturtean egiteko eta 2017-18 ikasturtean ezartzeko.	<p>L6.1.1.- Proiektua egin eta ebaluatu da.</p> <p>L6.1.2.- Proiektua sendotu da eta beste deialdi bat egin da ikastetxe publikoen autonomia sendotzeko.</p> <p>L6.1.3.- Autonomian sakontzeko proiektuak dituzten ikastetxeetako plantillen egonkortasuna erraztu da.</p>

L6.2.- Beharrezko bitartekoak jartzea ikastetxeetako zuzendaritza-taldea buru izan dadin, autonomiaz eta modu partekatatu eta eraginkorrean, erabakiak hartzeko, plangintza egiteko eta kudeatzeko bere ikastetxearen Hezkuntza Proiektua garatzeari eta hobetzeari dagokionez.

LORPEN-ADIERAZLEAK

2015-2016	2019-2020
<p>Hezkuntza-zuzendaritzen izendapenaren Dekretua eguneratzeko analisia egin da, ikastetxe publikoen autonomia garatzeko beharrezkoa den lidergoa sustatuko duten irizpideak sartzeko.</p> <p>Ikastetxeetako zuzendaritzen hasierako eta etengabeko prestakuntza-plan berri bat egin da, unibertsitateekin lankidetzan, zuzendaritza-ekipoen egonkortasuna eta profesionalizazioa sustatzeko beharrezkoa den kalitatezko prestakuntza espezifikoa ematen duena.</p>	<p>L6.2.1.- Hezkuntza-zuzendaritzen izendapena arautzen duen dekretua onartu da, horretarako pertsona kualifikatuenak eta motibatuenak hautatuz, karrera profesional baten aukerarekin eta hautagai egokiak erakartzea bultzatzen duten pizgarriekin.</p>



3.- LAGUNTZA-TRESNAK

Dekretuak garatzeko araudia agindu bidez gauzatzea da laguntza-tresnetako bat garapen-eta zehaztapen-maila handiagoa behar duten dekretuen alderdi batzuk aplikatzeko.

Laguntza-gidak ere, ikastetxeetako proiektu instituzionalak egiteko zein ikasgelan didaktikoki aplikatzeko, Heziberri 2020 planaren hezkuntza-eredu pedagogikoa gauzatzea ahalbidetzen duten tresnak dira.

Azkenik, konpetentzien araberako ikaskuntzaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren zerbitzurako espazioaren eta denboraren diseinuaren azterketa egitea aurreikusi da.

3.1.- DEKRETUAK GARATZEKO ARAUDIA

Maila guztien curriculum-dekretuen garapenak zenbait agindu biltzen ditu ikasleen ebaluazioarekin eta ikasleen aniztasunari eman beharreko erantzunarekin zerikusia dutenak, batez ere hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak duten ikasleei eman beharreko erantzunari dagokionez, non eta arreta arruntaz bestelako hezkuntza-arreta behar badute hezkuntza-premia bereziak dituztelako, ikasteko zailtasun espezifikoak dituztelako, gaitasun intelektual handiak dituztelako, hezkuntza-sisteman berandu sartu direlako edo baldintza pertsonalengatik edo eskola-historiari lotutakoengatik, beren gaitasun pertsonalen garapen handiena lor dezaten eta, edozein kasutan ere, ikasle guztientzat oro har ezarritako helburuak lortzeko.

Etengabeko ebaluazioaren printzipiotik abiatuta, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioaren ezaugarriek zehaztuko dute ikasleen aurrerabidea eta derrigorrezko ikasketen ondoko ikasketetara etorkizunean sartzea. Bestalde, Batxilergoak azken ebaluazio bat eskatzen du, behin betikoa izan daitekeena titulua lortzeko, ondorengo ikasketekin aurrera egiteko horrek dituen ondorioekin.

Bizitza osoko hezkuntzak helduentzat egokitutako curriculum bat eskatzen du, planteamendu malguago bati lotutako ezaugarri propioekin eta hartzaileei egokitutakoa, eta laneratzea edo lan-aukera hobek eskuratzea izango da betiere curriculum horren helburua.

Azkenik, ISEI-IVEIk egindako sistema-ebaluazioek ebaluazio horien ezaugarriak arautuko dituen arau bat behar dute, baita haien aplikazioarenak eta ikastetxeen urteko planei buruz haien emaitzek izan beharreko ondorioenak ere, hezkuntza-administrazioak dagozkion erabakiak har ditzala ahalbidetuz aldi berean. Arau honetan gardentasun- eta konfidentzialtasun-betebeharra ere bilduko da, baita familiei emaitzak jakinaraztea eta rankingak ezartzeko debekua ere.



3.2.- IKASTETXEETAKO PROIEKTU INSTITUZIONALAK EGITEKO EDO EGOKITZEKO GIDAK

Heziberri 2020 Planaren curriculum-garapeneko dekretuek zenbait proiektu instituzional biltzen dituzte, guztiak ere plan honen aurreko araudiak bildutakoak, autonomiari buruzko sortu berria izan ezik. Proiektu horietako batzuentzako gida eta ereduak ere badaude, orain aldatu beharrekoak, dekretu berrietan bildutako proposamenak eta Heziberri 2020 Planaren esparru pedagogikoan bildutakoak ikusirik. Horretarako, honako hauek berrikusteko aurreikuspena aurkezten da: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Ikastetxeko Curriculum Proiektua, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua, Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua eta Barne Erregimeneko Erregelamendua. Ikastetxe publiko zein pribatuei eskatzen zaizkien proiektu horiekin batera, Ikastetxe Publikoen Autonomian sakontzeko Proiektua aurreikusi dute dekretuek.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak hezkuntza-aukera biltzen duen proposamen integrala hartzen du barnean, ikastetxearen autonomiatik egina, eta jarraibide orientatzaile handiak, erreferentzia izan daitezkeenak hezkuntza-komunitateak ikastetxe horretan duen esku-hartze prozesua modu koherentean zuzentzeko.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan definitutako curriculum-jarduneko printzipioak eta ildo nagusiak ikastetxearentzat zehaztea biltzen du **Ikastetxeko Curriculum Proiektuak**.

Ikastetxe bakoitzak bere esparruan burutzeko irakaskuntzarekin eta hizkuntzen erabilerarekin lotutako alderdi guztien plangintza biltzen du **Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak**.

Azkenik, **ikastetxe publikoen Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua edo ikastetxe pribatuen Barne Erregimeneko Erregelamendua** curriculum-garapeneko dekretuetan aurreikusitakora egokituko da, baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretura ere.

Ikastetxe Publikoen Autonomian sakontzeko proiektuaren helburua da ikastetxe publikoen autonomian aurrera egitea, beren kabuz erabakiak hartzeko gaitasuna barne, alderdi pedagogikoei, curriculumari, plangintzari, antolaerari eta kudeaketari dagokienez, ikastetxe horien testuinguruaren premia eta eskaeren arabera.

Proiektu instituzionalak egiteko ez da hutsetik hasten, eta, aitzitik, hezkuntza-esperientzia ugari gaineratu behar dira, hala nola elebitasunaren eta eleaniztasunaren inguruan



egindakoak, ikaskuntzaren eta komunikazioaren teknologiak, aniztasunari eman beharreko erantzuna edo bizikidetza edo baterako hezkuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa. Guztiak ere hezkuntza-komunitateak partekatutako kultura pedagogiko bat eraikitzen lagundu dute, eta kultura horrek modu osagarrian hartzen ditu kontuan ekitatea, gizarte-konpromisoa, berrikuntza eta bikaintasun akademikoa.

Heziberri 2020 Planean ezarritako esparru pedagogikoa proiektu instituzionaletan zehazten da ezaugarri propioen eta ikasle guztien prestakuntza-espektatibak betetzeko ikastetxe bakoitza kokatuta dagoen testuinguruaren arabera. Horretan laguntzeko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak giden ereduak aurkeztuko ditu eta beharrezko prestakuntza-ekintzak egingo ditu ikastetxe bakoitzak proiektu instituzionalak egunera ditzan, edo, kasuan kasu, sor ditzan.

Proiektu instituzionalak	Kronograma
Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua	2015-16 ikasturteko 3. hiruhilekoa
Ikastetxeko Curriculum Proiektua	2016-17 ikasturteko 3. hiruhilekoa
Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua	2015-16 ikasturteko 2. hiruhilekoa
Ikastetxe Publikoen Autonomian sakontzeko proiektua	2016-17 ikasturtea: Ikastetxeentzako deialdia 2017-18 ikasturterako. 2017-18 ikasturtea: Proiektuaren esperientzia
Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua/Barne Erregimeneko Erregelamendua	2016-17 ikasturteko 3. hiruhilekoa



3.3.- IKASGELAN APLIKATZEKOAK DIREN GIDAK ETA TRESNAK

Ikastetxeak eta irakaskuntza-praktika eraginpean hartzen dituen zehaztasun-mailara heldu nahi dute aplikatzekoak diren gidek. Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoak bildutako printzipioak garatzeko irakasleak orientatzen dituzten tresnak dira:

1. Programazio didaktikoa
2. Unitate didaktikoen ereduak
3. Unitate didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko gida
4. Prozedura eta jarreraren artxiboa
5. Egoeren artxiboa

Programazio didaktikoa. Ekintza honetan, ikuskaritzarena da ekimena. Programazioetako aldaketa esanguratsuena da egoerak osagai berri gisa sartzea. Egoeren artxiboa bigarren hiruhilekorako egina izatea espero da, eta hori laguntza handikoa izan liteke programazioetan beharrezko aldaketak egiteko, gidan zein adibideetan.

Unitate didaktikoen ereduak. Egindako Unitate Didaktikoaren zehaztapenerako egokiak diren ikasmaterialak lantzea, unitateak betiere elaborazio-gidaren alderdiak biltzen dituelarik. Alor, irakasgai eta etapa bakoitzeko material bat lantzea proposatzen da.

Unitate didaktikoak egiteko eta ebaluatzeko gida. Bi dokumentu osagarri egitea: “Gida” eta “Zehaztapena”.

Prozedura eta jarreraren artxiboa. Dokumentu bat egitea, orientaziozkoa.

Egoeren artxiboa. Dokumentu bat egitea, orientazio didaktikorako, egoera-proposamenak bilduko dituen alor, irakasgai eta etapa guztietarako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza).

Ekintza bakoitzari espezifikoki dagozkion orientazioak eta adibideak egiteko fasearen ondoren, ikastetxeetan irakasle guztiei zabalduko zaiela ziurtatuko duten estrategiak diseinatzeko premia planteatzen da. Horretarako, guneko laguntza-zerbitzuek jardun-plan bat ezarriko dute.



Aplikazioa ikasgelan	Kronograma
Curriculum-materialak egiteko eta ebaluatze gida	2015-16 kurtsoko 1. hiruhilekoa
Programazio didaktikoa	2015-16 kurtsoko 2. eta 3. hiruhilekoa
Unitate Didaktikoen ereduak eta aniztasunari erantzutea	2015-16 kurtsoko 2. eta 3. hiruhilekoa
Egoeren artxiboa	2015-16 kurtsoko 2. hiruhilekoa
Prozedura eta jarreraren artxiboa	2016-2017



4.- HOBETZEKO PLANAREN HELBURUEN BETETZE-MAILAREN EGIATZAPENA

Hobetzeko planaren helburu orokorra da beharrezko neurriak biltzea ekitatean eta bikaintasunean aurrerantz egiteko, edozein hezkuntza-sistemaren kalitatea bermatzen duten printzipioak baitira.

Beharrezkotzat hartzen diren neurriak bat datoz Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Hezkuntzako dekretuetan eta etorkizuneko Batxilergoko dekretuan onartutako konpromisoekin, hezkuntza-sistema hobetzeko planari buruzko xedapen gehigarrietan definitutako ildo estrategikoetan bildutakoekin:

1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna
3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan
4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
5. Ikasleei, irakasleei eta hezkuntza-sistemari buruzko ikerketa eta ebaluazioa
6. Ikastetxe publikoen autonomian sakontzea

Ildo estrategiko horiek koherenteak dira mundu osoan hobekien dabilzan hezkuntza-sistemen ezaugarriekin, ISEI-IVEIk egindako “Hezkuntza Bikaintasunerantz” txostenaren eta McKinsey&Company txostenaren arabera (2015 eta 2012, hurrenez hurren), biak ere “EAEko hezkuntza-sistemaren diagnostikoa” atalean aipatutakoak.

Hobetzeko planean aurreikusitako helburu eta lorpen-adierazleen betetze-mailak informazioa emango du helburu orokorraren lorpenari buruz: “EAEko hezkuntza-sistemaren ekitatean aurrera egitea bikaintasunerantz”. Oinarrizko kompetentzia guztietan ikasleen emaitzen ebaluazioa, arrakasta balioetsi eta egiaztatzeko edota hobetze-planaren ildo estrategikoen doikuntza-neurriak hartzeko adierazlea izango da. Hobetzeko planeko ildo estrategikoetan hartzen diren neurri guztiak, justifikatzen dira eta bidezkoak dira ikasleen irteera-profilean definituta dauden oinarrizko kompetentziak, hala zeharkakoak nola diziplina baitako espezifikoak, lortzen laguntzen badute. Beraz, espero da ildo estrategiko bakoitzerako ezarritako helburuen hobekuntzaren eta ikaslearen emaitzen hobekuntzaren artean lotura egotea.

Hobetzeko planaren ildo estrategikoen lorpen-mailaren adierazleak xehatuta aurkezten dira ildo estrategiko bakoitzari dagozkien ataletan. Hezkuntza-sistemaren ekitatearekin eta ikasleen emaitzekin lotutakoak aurkezten dira atal honetan.

Adierazle estrukturalak (%)

Adierazleak	2020-21
Eskola-uzte goiztiarreko tasa (EUSTAT)	< 10
DBHko graduatu-titulua lortu duten ikasleak	>90
Egokitasun-tasa (ez-errepikatzaileen %)	>80

Konpetentzien hobekuntza-mailaren adierazleak PISAren arabera (%)

PISA	2021	
	Maila baxua	Maila bikaina
Irakurmena	<15	>10
Matematika	<15	>10
Zientziak	<15	>10

Oinarrizko konpetentzien hobekuntza-mailaren adierazleak, ikaslegoaren irteera profilaren arabera, ebaluazio-eredu propioaren bitartez (%)

Diziplina baitako oinarrizko konpetentziak	ED 2020			
	LEHEN HEZKUNTZA		BIGARREN HEZKUNTZA	
	Hasierakoa	Aurreratua	Hasierakoa	Aurreratua
Linguistikoa eta literarioa: Euskara	20-30	20-30	20-30	>30
Linguistikoa eta literarioa: Gaztelania	<20	>30	<20	>30
Linguistikoa eta literarioa: Ingelesa	20-30	20-30	<20	20-30
Matematika	<20	>30	<20	>30
Zientifikoa	20-30	20-30	20-30	20-30
Soziala eta Zibikoa	<20	>30	<20	20-30
Artistikoa	<20	>30	<20	>30
Teknologikoa	<20	>30	<20	>30
Mugimendurakoa	<20	>30	<20	>30

OHARRAK: Oinarrizko zehar-konpetentziak diziplina baitako oinarrizko konpetentzien barnean hartuz ebaluatuko dira.

ERANSKINA: ILDO ESTRATEGIKOEN ETA HAIEN HELBURUEN LABURPEN-KOADROA

ILDO ESTRATEGIKOA	HELBURUAK
L1 Hezkuntza- komunitatearen prestakuntza	L1.1.- Irteera-profilean definitutako konpetentziak ikasleek lor ditzaten, irakasleen konpetentzia-profila lortzera bideratzea hasierako prestakuntza.
	L1.2.- Oinarrizko Hezkuntzako Dekretuan ezarritako irteera-profila ikasleek lor dezaten, irakasleen konpetentzia-profila eguneratzera eta egiaztatzea bideratzea etengabeko prestakuntza, Prest_Gara Planaren bitartez.
	L1.3.- Hasierako eta etengabeko prestakuntza eskaintzea ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek ikastetxeetako etengabeko hobekuntza denbora luzez eta modu egokian gidatu dezaten.
	L1.4.- Esperientzia eta jardunbide egokiak abiapuntu dituen eta ikasgelan ikerketa eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak helburu dituen berdin arteko prestakuntza indartzea.
	L1.5.- Familiek eta irakasle ez diren langileek hausnarketa-prozesuetan eta prestakuntza-jardueretan parte har dezaten bultzatzea, ikasleen irteera-profilearen lorpenean irakasleekin lankidetzan jarduteko eta ikastetxearen hobekuntzarako ekarpenak egiteko.
L2 Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna	L2.1.- Jatorriari, etniari, generoari, kulturari, sexu-orientabideari eta genero-identitateari lotutako arrazoiengatik eskolaratze ez-diskriminatzailea bermatzea ikasleak onartzean, eta harrera, iragaita eta aniztasun funtzionalari eman beharreko erantzuna optimizatzea, gizarte-integrazio eta -kohesio handiagoa lortzeko.
	L2.2.- Absentismoa, eskola-uzte goiztiarra, eskola-porrota, aniztasunari eman beharreko erantzuna edo bazterkeriako edozein modu prebenitzea eta haren gain jardutea, baliabideak eraginkortasunez erabiliz ikasle guztien mesederako.
	L2.3.- Komunitate gero eta inklusiboagoen eraikuntzan aurrera egitea, familia, irakasle eta ikasleen zein hezkuntza-arloko, gizarte-arloko eta osasunaren esparruko agenteen inklusio eta parte-hartze prozesuak indartuz, baita ikastetxe eta sareen arteko komunikazioa eta trukea bultzatuz ere, ikasleek beren konpetentziak alaitz gehien garatzearen bidean laguntzeko.
L3 Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan	L3.1.- Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztunean ikasleek bizitzaren alor desberdinetan bi hizkuntza ofizialak era egokian eta eraginkorrean eta atzerriko hizkuntza nahikotasunez erabiltzeko gaitasuna bermatzea, bizitza osorako ikaskuntzaren markotik abiatuta ikasle ororen garapen pertsonalean, sozialean akademikoan eta profesionalean laguntzeko eta taldearen gizarte kohesioa lortzeko.
	L3.2.- Euskararen erabilera sozialerako aukerak eta esparruak areagotzea gelan eta gelatik kanpo, aisialdian lehentasuna jarriz eta batik bat gazteen harreman eta komunikazio esparruetan, gazteen arteko bizikidetzaren euskaraz sustatzeko.
	L3.3.- Ingeles hizkuntzaz gain beste ikasgai bat ingelesez irakastea orokortzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan atzerriko bigarren hizkuntza ikasteko plangintza egitea.
	L3.4.- Eleaniztasunetik abiatuta, euskararen eta hizkuntzen bizikidetzaren aldeko jarrera, iritzi eta gizarte irudikapen positiboak lantzea ikasleen hizkuntza hautuan euskarak presentzia handiagoa lor dezan.
	L3.5.- Ikastetxe bakoitzean, bere egoera soziolinguistikoaren arabera, hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jardura plangintza egitea, hau da, hizkuntza-

	proiektu eleaniztuna egitea, non euskara ardatz den, ikasle guztien hizkuntza gaitasuna bermatzeko.
L4 Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak	L4.1.- Heziberri 2020 planean bildutako planteamendu didaktiko eta metodologikoarekin koherenteak diren ikasmaterialen eta hezkuntza-edukien sorkuntza eta zabalkundea bultzatzea (Hezkuntza Baliabide Irekiak –HBI– , eduki digital eta inprimatuak,...) ikasle guztien konpetentzia-garapenean eta irakaskuntza-praktiken berriztatze metodologikoan laguntzeko.
	L4.2.- Ikastetxeen eraldaketa teknologiko-pedagogikoa bultzatzea Sare_Hezkuntza Gelan (SHG) proiektuen bidez hezkuntza-proiektuak hobetzeko.
	L4.3.- EAEko gizarte- eta hezkuntza-arloko agente guztien arteko lankidetzaren indartzea sareko ikaskuntzako Sare_Hezkuntza komunitate birtuala eraikiz jakintza sortu eta partekatzeko.
L5 Ebaluazioa eta ikerketak	L5.1.- Ikastetxeetako irakasleei laguntzea oinarriko konpetentzia guztien barneko eta etengabeko ebaluazioa egin dezaten, zeharkakoak zein diziplina baitakoak direla, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat etorriz.
	L5.2.- Ikastetxeekin batera planifikatzea eta antolatzea prestakuntzako diagnostiko-ebaluazioak etapa bakoitzaren erdian, barne-gogoeta aktibatzen eta etengabeko hobekuntzako prozesuei laguntzeko ikastetxe bakoitzeko hobetzeko planak eguneratuz eta beharrezkoak diren sendotze-neurriak hartuz.
	L5.3.- Etapa-amaierako kanpoko eta banakako ebaluazio diagnostikoa egitea Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleek beren irteera-profilean aurreikusitako oinarriko konpetentzia guztiak zenbateraino egiaztatu dituzten egiaztatzen, eta horrela ebaluazio-sistema zorrotz, fidagarri eta etengabe bat izateko, informazioa eta datu objektiboak ekarriko dituen, EAEko hezkuntza-sistemaren hobekuntzan eragina izango duten erabakiak hartzeko baliagarriak izango direnak.
	L5.4.- Nazioarteko ebaluazioetan parte hartzea, beharrezkoak diren eta EAEko hezkuntza-sistemarekin koherenteak diren egokitzapenak eginez, ikasleentzako emaitzei buruzko konparazio-datuak izateko eta beharrezko hobetze-planak eta sendotze-neurriak lantzeko.
	L5.5.- Irakasleen konpetentzien mapa definitzea, egungo ikerketetatik eta curriculum-garapenerako dekretuetan zehazten den ikaslearen irteera-profiletik abiatuta, irakasleen ebaluazio-prozesu guztietan erreferentzia izan dadin.
	L5.6.- Irakasleen karrera profesionala ezartzea, irakasle-konpetentzien mapa erreferentzia gisa hartuta irakasleen hobekuntzan laguntzeko.
	L5.7.- Hezkuntza-sistema ebaluatzea datu objektiboak izateko (konparatiboak) eta erabakiak hartzeko eta sistema hobetzeko baliagarriak izango diren ikerketak egitea.
L6 Ikastetxe publikoen autonomian sakontzea	L6.1.- Ikastetxe publikoen autonomia sakontzeko proiektua sortzea, ezartzea eta ebaluatzea, proiektuaren helburuak, edukiak, betekizunak, eta hautatzeko eta ebaluatzeko prozedura definituz, ikastetxeei aukera emateko bere berrikuntza-proiektua modu eraginkorrean egiteko eta garatzeko.
	L6.2.- Beharrezko bitartekoak jartzea ikastetxeetako zuzendaritza-taldea buru izan dadin, autonomiaz eta modu partekatu eta eraginkorrean, erabakiak hartzeko, plangintza egiteko eta kudeatzeko bere ikastetxearen Hezkuntza Proiektua garatzeari eta hobetzeari dagokionez.